ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko uztailaren 26a > Astelehena > VII. urtea > 287. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM



"Bikoteak lehendik arazoak baditu, horiek azaleratu egingo dira opor sasoian"

**Sara Vitoria**
Psikologoa > 09

**G2a** Errusiako doinuengatik txundituta > 29

**BERGARA**
Herria turismorako erakargarri egiteko plangintza > 16-17

**ARAMAIO**
Bihar Gasteizen protesta (10:30), errepidearengatik > 20

**FUTBOLA**
Ohorezko Erregionala: entrenatzaile berriak hiru taldetan > 22-23

**TURISMOA** > UDAKO OPORRAK

## Abuztuko lehen hamabostaldian espero dituzte bisitari gehien

**BIZPAHIRU EGUN** Erreserba batzuk eginda daude dagoeneko; bizpahiru egun egingo dituzte gehienek geurean

**BERRIKUNTZAK** Zubiate labea Eskoriatzan, espeleoabentura Arrikrutzen eta Intxortako bidea Elgetan, dira berrikuntzak

**BISITA GIDATUAK** Oñatiko unibertsitatea eta parrokia, Bergara eta gatz museorako bisita gidatuak izango dira > 02

**PIRINIOAK** > ISTRIPUA

## Zortzi orduko erreskatea

Arrasatear gaztea zulora jausi eta zortzi ordu behar izan zituen Guardia Zibilak ateratzeko > 05

## Ehunka bisitari izan ditu asteburuan Olandixoko tunelak

Gaurko inaugurazio ekitaldiaren ostean (11:00) zabalduko dute zirkulaziora Arrasateko saihesbide berria, mendebaldekoa. Baina Diputazioak emandako aukera aprobetxatu, eta gaur arte itxaron barik, zapatu eta domekan bisitari mordoska izan ditu Olandixoko tunelak. Ezohiko bisitariak izan dira, guztiak ere motor bakoak. Ibilbidea "dotorea" eta "polita" pentsatu zaie gehienei. Hala ere, gidari sena nagusi, Arrasate barruko zirkulazioari, eta orokorrean gidariei egingo dion mesedea zuten buruan. > 04-05




**PASEOAN** Ateak zabaldu orduko bisitariek Olandixoko tunela "hartu" zuten, paseorako. JULIO CALLEJA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-05
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39



## Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 25era arte. Hori dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren hurrengo zenbakia irailaren 6an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak.

**KIROLA** > ZIKLISMOA

## Iban Velasco 62. tokian Tourrean

Euskaltel Euskadi taldeko txirrindulariak 62. tokian bukatu zuen Frantziako Tourra. "Nekatuta eta gogortuta" dagoela esan zigun helmugara heldu zenean. Zapatuan, Donostiako Klasikan parte hartuko du. > 21



Iban Velasco. GOIENKARIA

Goiena kluba



Esait-eko kamiseta gorria opari. Nahi?

Zoaz 3. orrialdera

**TURISMOA** > UDAKO OPORRAK

# Abuztuko lehen hamabostaldian espero dituzte gurean bisitari gehienak

**AZKEN MOMENTUAN** Landetxeetan, landa turismoetan eta hoteletan erreserba batzuk eginda daude; gehienek bizpahiru egun igaroko dituzte Debagoienean

**AURTENGO ESKAINTZA** Hainbat berrikuntza gertatu dituzte aurten: Zubiate labea, Eskoriatzan; espeleoabentura, Arrikrutzen; eta Intxortako ibilbide tematikoa, Elgetan



Horrelako taldeak ikusiko dira datozen egunotan Oñatiko unibertsitate parean.

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Udako oporrak. Urtebete zain egon ostean, azkenean iritsi dira; gehienendako, behintzat. Batzuek deskantsatzeko aprobetxatuko dute eta beste askok turismoa egiteko; azken horiek hartzeko gertu gaude dagoeneko Debagoienean. Oraindik mugimendu larregi igarri ez bada ere, abuztuko lehen hamabostaldian bisitariak espero dituztela esan digute bailarako turismo arloko profesionalek.

Ostatuetan, oraingoz, ez dago erreserba askorik eginda. Elgetako Eguzkitza landetxeko Mari Karmen Osak, esaterako, azaldu digu urte osoan langileak izan dituela etxean eta, hortaz, ez duela erreserbak hartzerik izan. Dena dela, gaineratu du jendeak azken momentura arte itxaroten duela eta lehen hamabostaldian landetxea beteta izatea espero duela.

**IAZ BAINO ZERTXOBAIT GEHIAGO**

Bestalde, Aretxabaletako Areantza auzoan dagoen Mitarte Garai landa turismoko Mariasun Zaloñak esan digu lehenengo hamabostaldirako hainbat erreserba dituela: "Abuzturako apurka betetzen doa eta uztailean ere mugimendu apur bat egon da. Orain dela hamar urteko kontuetara ez gara itzuliko, baina ez doa horren txarto. Nik uste dut iazkoaren antzera edo zertxobait gehiago egongo dela aurten".

Hoteletako egoera antzekoa da. Oñatiko Etxe-Aundiko Ramon Murillok esan du lehen hamabostaldirako "zertxobait" dutela: "Oraindik ez gaude %100ean, baina erreserbak eginak ditugu. Hotel txikia dugu, 12 logelakoa, eta, hortaz, betetzea ez da zaila. Abuztua ez den udako gainerako hilabeteetan, Ulma eta inguruko enpresetara datozenekin beteta dugu".

**Ohiko tokiak ere gertu egongo dira, bisita gidatuen bidez: gatz museoa, Oñatiko unibertsitatea eta parrokia eta Bergara**

**Oñatin kanpaina bat jarri dute martxan, turismoarekin lotutako tokietan informazioa banatuta**

Bisiten iraupenari dagokionez, Mitarte Garaiko arduradunak dio astebetez egongo direnak badaude ere, gehienak bizpahiru gau egoten direla. Etxe-Aundin ere bat datoz Aretxabaletakoarekin: turista gehienak Kataluniakoak eta Valentziakoak dira eta asteburu bat hartzen dute ostatu.

**ZUBIATEKO LABEA**

Debagoienean zehar banatuta dauden turismo bulegoak turista horiek hartzeko gertu daude. Aurtengo eskaintza, gainera, berrikuntzekin dator: Eskoriatzan, esaterako, Ibarraundi museoa bisitatzeaz gain, ondoan dagoen Zubiateko labea ere ezagutu ahal izango da.

Euskal Herrian gordetzen den zeramika labea adibide onenetakoa da, eta gaur egunera iritsi den mota horretako (arabiarra) bakarra Gipuzkoan. Horrez gain, XIX. mendeko buztingintza eta zeramika gertutik ezagutzeko aukera izango da toki berean. Izan ere, *Bi esku buztina lantzen* izeneko erakusketa ipini dute. Panel informatibo, argazki eta ikusentzunezkoen bidez zeramika ekoizteko prozesu guztia azaltzen da. Goizez bisitatu ahalko da, aurretik Ibarraunditik joanda.

Historia eta ibiltzea gustuko dutenek, gainera, Elgetako Intxortako magalean dagoen ibilbidea egin ahal izango dute. 36ko gerra oinarritzat hartuta esandako mendi magalean izandako frontea ezagutzeko aukera izango dute turistek. Horren abiapuntua, dena dela, Espaloian dago. Herritik hasita, Asentzioko atsedengunera doa bidea, eta, gero, *Intxortako atea* monumentutik eta *La Belga* puntua igarota, Salbador ermita aurrean aurkituko dute azken informazio panela.

Bestalde, abentura gehiago nahiago dutenek Arrikrutzeko kobak beste modu batean ezagutu ahal izango dituzte aurten lehen aldiz. Hiruzpalau ordu irauten duen bisita horretan, Mercel Lopurben galeria bisitatuko dute, eta mundu ezezagun eta misteriotsuan murgildu. Bisita programatuak dira horiek, abuztuaren 14an eta 28an egingo direnak. Interesatuek aurretik eman beharko dute izena eta material erosoa, mendiko botak eta frontala eraman beharko dituzte bisitarako.

Horrez gain, ohiko tokiak ere gertu egongo dira, bisita gidatuen bidez: Leintz Gatzagako gatz museoa; Oñatiko unibertsitatea eta parrokia, Arantzazuko santutegia eta Gomiztegiko artzain eskola; eta Bergarako erdigune historikoa, hain justu.

Uztaileko bisiten eta abuzturako aurreikuspenen gainean denetarik dago turismo bulego eta museoko arduradunen artean. Eskoriatzako Ibarraundi museoko Nerea Aranak azaldu digu uztailean jendea pasa dela handik, herriko margolarien erakusketa dagoelako hilaren 30era arte. Abuztuari dagokionez, iazkoaren antzekoa izango delakoan dago.

**OÑATIN KANPAINA**

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako gerente Ikerne Altubek esan digu ekainean jende gutxiago ibili dela herrian eta Arantzazun; eta Arrikrutzen, ostera, bisitarien kopuruak gora egin duela. Horrekin batera, azaldu digu kanpaina bat jarri dutela martxan, turismoarekin lotutako tokietan Oñatiri buruzko informazioa banatuta. Dagoeneko emaitzak eman dituela eta abuztuan ere horren eragina igarriko dutela uste du: "Oso harrera ona ari da izaten".

Bergaran ez dakite abuztua zelan etorriko den. Gogorarazi dute, dena dela, aurten ez direla ingelesezko bisita gidatuak eskainiko eta seminarioa ere ez dela bisitatuko, obretan dagoelako. Horrek eragina izan dezakeela uste dute. Leintz Gatzagako Labideako arduradun Aitziber Gorosabelek, azkenik, gogorarazi du pasoko herria dela eta, hortaz, normalean, jendeak ez duela aurretik hitzorduak lortzen. Hortaz, momentuan bertan egiten dituzte bisitak, ahal izanez gero.

## Bulegoak zabalik

**OÑATI**

**Arrikrutz**
- **Ordutegia:** 10:00-14:00 eta 15:00-19:00.
- **Telefonoa:** 943 08 20 00.

**Arantzazuko santutegia**
- **Ordutegia:** 10:30, 11:30, 12:30, 16:00 eta 17:00.
- **Telefonoa:** 943 78 17 89 11.

**Turismo bulegoa**
- **Ordutegia:** Unibertsitatea eta parrokia: 12:30 eta 17:00.
- **Telefonoa:** 943 78 34 53.

**Gomiztegi artzain eskola**
- **Ordutegia:** Bisita gidatuak taldeendako aurretik deituta.
- **Telefonoa:** 943 25 10 08.

**LEINTZ GATZAGA**

**Gatz museoa**
- **Ordutegia:** Bisita gidatuak. Abuztukoak zehaztu barik.
- **Telefonoa:** 665 73 95 49.

**ESKORIATZA**

**Ibarraundi eta Zubiate**
- **Ordutegia:** 09:00etatik 14:00etara, astegunetan.
- **Telefonoa:** 943 71 54 53.

**BERGARA**

**Herriko erdigune historikoa**
- **Ordutegia:** Astegunetan, 10:30-14:00 eta 16:00-19:00; eta gainerakoetan goizez.
- **Telefonoa:** 943 77 91 28.



MIRIAN BITERI



MIRIAN BITERI

## MARI KARMEN OSA

> Eguzkitza landetxea (Elgeta)

"Normalean, ez dut abuzturako erreserbarik izaten; azken momentuan deitzen dute gehienek. Kostako ostatuak betetzen direnean datoz gure etxera. Dena dela, abuztuko lehenengo bi asteetan beteta izaten dut landetxea".




MIRIAN BITERI

## RAMON MURILLO

> Etxe-Aundi hotela eta jatetxea (Oñati)

"Oñatin turismoa bultzatzeko neurriak hartzen ari badira ere, turismoa ez da egun batetik bestera lortzen. Ez dakit zergatik, baina kosta egiten da. Ez dut uste inguru honetan ezer falta denik, denetarik dugu".



MIRARI ALTUBE

## NEREA ARANA

> Ibarraundi museoko teknikaria (Eskoriatza)

"Herrian egitekoak diren askotariko erabilerako aretoaren obrak direla-eta, zinema zaharreko makinak hortik atera dituzte eta Ibarraundira ekarri. Horiek garbitu egingo ditugu eta nahi duenak ikusi ahalko ditu abuztuan".




GOIENKARIA

## AITZIBER GOROSABEL

> Labideako arduraduna (Leintz Gatzaga)

"Zapatu eta domeketan gatz museoaren bisita gidatuak eskaintzen ditugu; baita astean zehar, ahal izanez gero. Gatz museoaz gain, herrikoa eta Dorletako santutegikoa ere egiten dugu, baita mendi ibilbideren bat edo beste ere".

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

UZTAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



ARRIKRUTZ oñatiko kobak

ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA
Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



ELHUYAR fundazioa
elhuyar.org/zoozoroa

ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



esait

EUSKALTELEKO KAMISETA
Bidali KLUBA EUSKALTEL [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



euskaltel Euskadi

SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA

Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**AZPIEGITURAK** > ARRASATEKO MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

# Adin guztietako bisitariak Olandixon, saihesbidea ikusteko

Zapatu goizean, zabaldu aurretik dagoeneko jendea itxaroten zegoen

Gaur zabalduko dute zirkulaziora, goizean (11:00) inauguratu ostean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gaur, astelehena, 11:00etan inauguratuko dute Olandixoko tunela (Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea), agintarien ekitaldiarekin. Hori amaitutakoan zabalduko dute errepide berria automobilendako. Eta seguru hasierako egun hauetan, behintzat, zirkulazio esanguratsua izango duela Olandixok, batek baino gehiagok errepide berria ikustearren bakarrik egingo dueta, handik bueltatxoa.

**BISITARI MORDOA**

Halaxe gertatu da behintzat asteburuan. Familiarekin, bikotekidearekin, bakarka, oinez, korrika, patinetean, bizikletan, bastoiarekin… berdin da zela, modu eta adin guztiak egokiak izan dira-eta, Olandixoko tunela bertatik bertara ikusi eta zeharkatzeko lehen aldiz.

Zapatuko 10:00etan eman zuten bisitaldi berezi hori hasi ahal izateko baimena, 21:00ak arte. Hala ere, saihesbidearen sarrerako zaindariak esanda, "09:30erako jendea itxaroten zegoen". Are gehiago, automobil gidariren bat zein beste ere pasatzen ahalegindu zirela kontatu du.

Hark, baina, utzi ez. Eta Olandixoko tunelak erakutsi zuen irudia parke edo pasealeku erraldoi batena izan zen.

**PAISAIA BERRIAK**

Arrazoi nagusia, jakina, kuriositatea. Saihesbidea bera ikusteko bai, baina baita ere saihesbideak ematen duen perspektiba berria aprobetxatzeko ere: "Perspektiba ezberdina da gauzak gainetik ikustea; ikusi ditut ezagutzen ez nituen baserri bi, autobidea beste leku batetik…", kontatu du Izaskunek.

"Pentsatzen nuen modukoa da, oso ondo dago. Inpresionatu ez du egiten, punta batetik beste aldeko irteera ikusten denez…", diosku Doroteok.

**ZIRKULAZIOAN ZELA ERAGIN**

Gehientsuenen komentarioa, baina, etorkizunarekin lotutakoa zen, esperantzatsu beti ere: "Arrasateko kalean igarriko dela pentsatzen dut, zirkulazio apur bat kenduko du", zioen Mari Karmenek. Erabili, berriz, gehienek dute erabiltzeko asmoa: "Ama Uribarrin bizi da eta handik Aretxabaletara joan behar banaiz, hemendik joango naiz".

Hala ere, zalantzaren bat zein beste zutenak ere baziren: "Ez da saturatuko Mugarriteko biribilgunea?", esan zuen Izaskunek. Eta baita saihesbideko kartelak gaztelania hutsez zeudelako kexu zirenak ere.

**INAUGURAZIO EKITALDIA**

Kontuak kontu eta esandako moduan, motor bako bisitarien ostean, gaur estreinatuko dute motordunek, benetako erabiltzaileek Mendebaldeko saihesbidea, GI-2620 errepidea. Lehenengo, baina, inaugurazio ekital-



Era eta adinguztietako txirrinduzaleak ibili dira aste

BISITARIEN ESANAK



**Iban, Roberto, Markel, Eneko eta lagunak**

"Estreinatu dugu, eta oso ondo, primeran. Aretxabaletatik etorri gara. 20 bat minutuan egin dugu, paseo lasaian. Ea, baina, gero balioko duen, Arrasateko erdialdeko zirkulazioa arintzen duen! Ni (Iban) Oñatira joaten naiz lanera eta ez dut hau asko erabiliko. Ni, berriz, (Roberto) egunero errepidean nago, ikasleekin ibiltzen naiz; eta egunero ibiliko naiz gora eta behera, bai tunel honetan eta baita Arrasate erdian ere. Bestalde, logikoa da errepide hau bidesari barik izatea".



**Mari Karmen**

"Oso dotorea pentsatu zait eta jende asko ikusi dut. Bihar ez daukat denborarik etortzeko, bestela bihar ere etorriko nintzateke. Honek gauzok lehenengotan ezagutu behar dira, bestela... gero bakarrik automobilean ahal da".



**Doroteo**

"Apustua egin dugu; nik esaten nuen 60 lagun baino gehiago ikusiko genituela hemen barruan. Getariako Kaia jatetxean zazpi afari da apustua, eta apustua egin duena galtzeko beldurrez badoa joan! Jende asko dabil!".



**Izaskun**

"San Andrestik zehar etorri naiz eta Uribarri aldera noa. Oraindik ez dut tunela ezagutzen eta kuriositate handia daukat. Zabaltzen dutenean, uste dut mesede egin eta libratu egingo dela Udalako biribilgunea".

**IKERKUNTZA** > KUDEATUZ PROGRAMA

# Irailean hasiko dute 'Alumiform' ikerketa proiektua

Mankomunitateak eta Diputazioak Kudeatuz programan parte hartzea adostu dute; Bergarako Migel Altunan garatuko dute proiektua

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Kudeatuz programaren bitartez Bergarako Migel Altuna institutuan *Alumiform* proiektua jarriko dute martxan datorren irailetik aurrera. Hori da Mankomunitateko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiak adostu dutena.

"Mankomunitateak hainbat proiektu aurkeztu zituen eta Migel Altuna institutuan aurrera aterako dena da onartu digutena", azaldu digu Koldo Azkoitiak, Garapen Agentziako teknikariak.

**HOTZEKO ESTANPAZIOA**

Proiektuaren estrategia nagusia hotzeko estanpazioko aluminioen eta batez ere automozioko sektorean gehien erabiltzen diren aleazioen konformagarritasuna aztertzea eta behar diren entseguak egitea dela azaldu du Azkoitiak. "Entseguak aluminioarekin egin beharrean informatika programa baten bitartez egitea da asmoa; horrela, jakin daiteke zer gertatuko den pieza batekin estanpazio kolpe bat jasotzen duenean", dio Azkoitiak.

Migel Altuna institutua arduratuko da proiektuarekin; horretarako, hainbat enpresaren laguntza izango du: Tornilleria Deba, Ecenarro S. Coop., Lazpiur SA, Industrias GOL; eta, Frantzia, Italia eta Danimarkako beste enpresa batzuk.

**IKERKETA PROIEKTUAK**

Kudeatuz Diputazioak garapen agentziekin egiten duen programa da. Ikerketan oinarrituta proiektu ezberdinak aurrera eramatea da helburua.

ESANAK

**"Entseguak aluminioarekin egin beharrean informatika programa bidez egitea da proiektuaren asmoa"**

**Koldo Azkoitia** > Mankomunitatea

> ZERBITZUAK

### Neurri bereziak AP1 autobidean, irteera operazioari begira

Arabako Diputazioak neurri bereziak jarriko ditu AP-1 autobidean, uztail bukaerako irteera operazioari aurre egiteko. Aurreikusi dute uztaileko azken aste bukaeran, orduko, 2.000 auto pasako dela. Horrela, bidaiak ordaintzeko modu berria jarriko dute ilara luzeak daudenean: autobideko langileek autoz auto kobratuko dituzte bidaiak. Txarteletan, ordainduta dagoela adierazten duen zigilua jarriko dute. Ordainlekura iristerakoan zigilua duen txartela erakutsi beharko da. Horrez gain, hiru ordainleku gehiago ere jarri dituzte.



buruan Olandixoko tunela estreinatzen

ARGAZKILARIA

dia egingo dute. Bestelakoen artean, Gipuzkoako Diputazioko zein Arrasateko Udaleko ordezkariek parte hartuko dute gaurko ekitaldian. Esaterako, Diputaziotik jakinarazi dute Markel Olano Diputatu nagusia, Eneko Goia, Bide Azpiegituretako Diputatua eta Luis Mari Apraiz, Errepideetako Zuzendari Nagusia eta Arrasateko EAJko bozeramailea izango direla. 11:00etan egin dute hitzordua, Olandixoko tunelean bertan, Mugarriteko biribilgunetik sartuta.

BISITARIEN IRITZIAK



Izaskun, Josu eta Jose Luis

"Oraindik ez dugu tunela bukatu, baina orain arte ikusi duguna polita da. Espazio aldetik-eta, adibidez, ondo dago. Aretxabaletatik gatoz, automobila behean aparkatuta utzi eta paseoa egiteko aprobetxatu dugu. Gero, gidari moduan ere erabiliko dugula uste dut. Eta Santa Ageda ingurua arintzen lagunduko duela ere uste dut, hori bai, beste aldeko sarrera akaso masifikatu egin daitekeela uste dut, Aretxabaletara doana".



Severino eta Fernando

"Ikusi duguna oso ondo dado, herriarendako oso mesedegarria izango dela pentsatzen dugu. Asko arinduko da zirkulazioa. Garagartzan lan egiten dut nik (Severinok) eta ilara handiak jasan behar izaten ditugu".

etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

## Ez egin amets handirik, bueltan egongo gara

Oporrak hartuko dituzue laster (dagoeneko ez badituzue hartu, behintzat) eta gogo biziz zaudete laneko kontuak alde batera laga eta bizitza berri bati ekiteko, hilabetez. Zenbat plan apuntatu dituzue? Zenbat egin behar lau asterako? Benetan guztiak egiteko asmoa duzue? Urtero egiten dut nik ere sekula urtebetean egingo ez nituzkeenen zerrenda abuzturako, baina aurten oporraldia zerrendarik gabe pasatzeko asmoa dut. Ea lortzen dudan!

Urteko garai honetan badirudi munduaren amaiera datorrela: lanak bukatu behar (irailean etorriko ez bagina moduan), oporretara joateko planak egin (betiko goazela ematen du batzuetan), agurrak kalean (ondo pasa!), musuak... Total, hilabete barru berdinean jarraitzeko. Badakit gogorra dela onartzea, baina irailean berriz bueltatuko gara lanera. Oporretan ondo pasa, urrutira joan bidaian, plan bereziak egin... Baina ez ilusionatu gehiegi: ez da mundua bukatu behar, ez duzue hilabetean bizimodua aldatuko, irailean hor izango duzue nagusia zain.

"Gogorra da onartzea, baina irailean berriz bueltatuko gara lanera"

Gogorregi ari naizela irudituko zaizue agian, oporraldirako ilusioa zapuztu dizuet igual, baina, jakizue, zuen hobe beharrez ari naizela. Kostata konturatu da nire burua honetaz eta zuekin guztiokin konpartitu nahi nuen, berandu baino lehen. Irailean depresioarekin baldin bazaudete, ez esan abisatu ez nizuenik! Ondo pasa eta musu bat!

**> Krisiarekin**
**urrutirako bidaiak gutxiago egiten omen dira orain; jendea gertuago geratzen dela entzun diot bidaiagentzia bateko langileari. Niri ez zait hori iruditzen; urruti eta gertu hain kontzeptu subjektiboak dira...**

**> 'CouchSurfing'**
**egin dezakezue bidaiatzeko diru gutxi izanez gero. Webgunean sartu, izena eman, aukeratu nora joan nahi duzun eta ea inor bere etxean lekutxo bat egiteko prest dagoen. Lekuak ikusteaz gain, bertako jendea ezagutuko duzu.**

**ISTRIPUA** > PIRINIOTAN

# Ia zortzi orduko erreskatearekin lortu zuten 25 urteko arrasatearra menditik ateratzea

A.E.L. arrasatearra Huescako San Jorge ospitalera eraman zuten, hankan apurketa eta sorbalda dislokatuta zituelako

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Zapatuan eguerdi partean, 25 urteko A.E.L. arrasatearra Fagoko sakanako sifoi (zulo) batera jausi eta irten ezinda geratu zen, lagunek ahalegin guztiak egin arren. Guardia Zibilari deitu behar izan zioten azkenean. Eta haiek lortu zuten arrasatear gaztea menditik atera eta Huescako San Jorge ospitalera eramatea, nahikoa lanekin, baina.

**HELIKOPTEROA IRITSI EZINDA**

Huescako gobernuaren ordezkariordetzak helarazitako informazioaren arabera, sakana horren estua zen, ezen "erreskateak zailtasun maximoa" izan zuela. Baita osteko trasladoak ere.

Komunikazio agentzien arabera, rappelean zebilen arrasatearra istripua izan zuenean; adar batetik zintzilik geratu ostean, urak zulo sakon batera arrastatu zuen. Zaurituta geratu zen han, tibia eta peronearen apurketa posiblearekin eta sorbalda dislokatuta zuela. Guardia Zibilaren erreskate taldeko bost lagun eta kamilladuna joan ziren laguntzera, helikopteroak ezin izan zuelako bertaraino iritsi. Ondorioz, erreskate taldekoek euren kabuz joan behar izan zuten, eta behin agenteak gaztea esku-ohean lotu ostean, igeri egiten, rappel egiten eta tirolinak erabilita lortu zuten gaztea menditik atera eta ospitalera eramatea.

**KIROLA** > MENDI MARTXA

# ESAITen mendi martxa Elgetatik pasatuko da

Abuztuaren 4an egin dute hitzordua; ekitaldi ugari prestatu dituzte

**LANDER MUÑAGORRI** > ELGETA

Hamargarren urtez, abuztuaren 4an, eguaztena, ESAITek antolatutako mendi martxa egingo dute, Euskal Herriko selekzioa aldarrikatzeko.

Egun osoko jaia antolatu dute, 11:00etan hasita, Elgetako udal ordezkariek mendi martxari egingo dioten ongietorriarekin. Ondoren, 13:00etan gizonezkoen Euskal Herriko trontza txapelketa egingo da, eta indarrak berreskuratzeko, 14:30ean herri bazkaria.

Arratsaldean, berriz, 18:00etatik 19:00etara, bolo txapelketa irekia egingo dute, bolatokian. Eta egunari amaiera emateko, 19:00etatik 21:00etara triki bertso poteoa egingo dute Elgetako kaleetan.

Mendi martxak aurrera jarraitu, eta Aramaiotik ere pasatuko da, abuztuaren 6an. Han ere egingo dituzte ekintzak.


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada
giro!
Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Anduaga Jatetxea
Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54
Dorleta
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68
Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

**ELKARTASUNA** > 'OPORRAK BAKEAN'

# Uda gure artean pasako duten ume sahararrei harrera egin diete Arrasaten

'Oporrak bakean' programaren bitartez bederatzi ume etorri dira Arrasatera; Bergarara bat eta Antzuolara beste bat



Programan parte hartzen dabiltzan haur eta gurasoak udal ordezkariekin. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Badira aste batzuk Saharako umeak gurera iritsi zirela. Guztira, hamaika gaztetxo etorri dira Debagoienera: bederatzi Arrasatera, bat Bergarara eta beste bat Antzuolara. Bada, gaztetxoei harrera egin zieten eguenean Arrasateko udaletxean – aurten Bergaran ez dute ekitaldirik egin, bi bakarrik etorri direlako.

Ino Galparsoro alkateak eta Oihana Aranburu zinegotziak ongietorria egin zieten arrasatearren izenean udaletxeko areto nagusian. Galparsorok batez ere familiak zoriondu zituen, "ausartak izan direlako". Aurten zazpi familiak esku hartu dute *Oporrak bakean* programan; horietatik bi familia, gainera, berriak dira. Agurne Juldain Nubi elkarteko arduradunak familia berriak izatearen garrantzia azaldu du: "Datorren urtean lau ume ez dira etorriko, euren zikloa bete dutelako. Hortaz, seguru asko familia horiek ez dituzte ume berriak hartuko. Hala, familia berrien beharrean egongo gara".

**OSASUN AZTERKETAK EGIN**

Familiek haurrekiko duten betebeharrak dira, besteak beste, osasun azterketak egitea. Gainera, udako egun hauetan Saharako berotik urrun egotea da umeak gurera etortzearen arrazoietako bat; baita elikadura zaintzea ere: frutak eta jogurtak jatea, adibidez.



**Fatma, Juan Cruz eta Minetu**
Arrasate eta Sahara

"Lehenengo aldia da Saharako haurrak etxean hartzen dituguna. Emaztea hitzaldi baten egon zen eta hark esanda animatu ginen. Oraingoz, esperientzia oso ona da. Bi neska hartu ditugu; lehenengo bat etorri zen eta bigarrena iritsi arte, egia esan, nahiko txarto pasatu zuen. Baina orain oso ondo konpontzen gara".



**Mohamed**
Sahara

"Bost urte dira Arrasatera etortzen hasi nintzena. Oso ondo pasatzen dugu; gehien gustatzen zaidana da igerilekura joatea eta lagunekin jolastea".



**Jalihenna, Nenus eta Naziha**
Arrasate eta Sahara

"Badira urte batzuk *Oporrak bakean* programan parte hartzen dudana. Gainera, lehenengo urtean hartu nuen mutikoak ikusmen arazo larriak ditu; arazo hori tarteko, bost urtez gurekin bizi izaten egon da Arrasaten. Aurten, bere arrebarekin etorri da gurera udara pasatzera. Egia esan, oso gustura gaude esperientziarekin".

**Hilario Manzanedo** > AHTren Aurkako Asanbladako kidea

# "Kanpaldian kosta egiten da bertakoekin kontaktua izatea"




Hilario Manzanedo, eguenean, Antzuolako Torresoroan. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

**Abiadura Handiko Trenaren aurkako kanpaldia hartuko du aurten Antzuolak. Gaur hasiko da, 18:30ean, kalejira batekin. Astebeteko iraupena izango duen protestan, tailerrak, mahai-inguruak eta mendi ibilbideak egingo dituztela azaldu digu AHTren Aurkako Asanbladako Hilario Manzanedok.**

**Zeintzuk dira aurtengo berrikuntzak?**

Hasteko, bi asteko kanpaldia izan beharrean astebetekoa egingo dugu aurten. Edukiari dagokionez, tailer berriak ditugu. Cristina Leraltak, esaterako, barne espiritualtasunaren eta militantziaren arteko orekaz jardungo du. Martitzen goizean, gainera, praktika eta teoria uztartuko duen tailerra egingo dugu, ekosistemaren berreskurapenaren harira.

**Zenbat lagun espero dituzue?**

Zaila da asmatzea, aurten motzagoa delako kanpaldia. Astegunetan, normalean, 100 eta 120 lagun artean batzen dira; asteburuan kopurua bikoiztu egiten da.

**Zergatik aukeratu duzue Antzuola kanpaldia egiteko?**

Zuzenean kaltetuak diren edo izango diren herriak aukeratzen ditugu urtero. Lanak hastear daude Antzuolan; ingurune zoragarria duen eta baserriak mantentzen dituen herri txikian, hain justu. Trenaz gain, Durango-Beasain autobidea ere pasatzen da herritik. Trenak zabortegi izugarriak eragingo dituen arren, autobideak inpaktu handiagoa izango du ikusterakoan. Hori guztia kontuan hartuta, herriko taldeekin eta Udalarekin jarri ginen harremanetan eta hemen egitea erabaki genuen.

**Herriko elkarteak diozu. Antzuolarren partea-hartzea garrantzitsua izango da, ezta?**

Hala da, eta horregatik, kanpaldia egin aurretik, batzarra egiten dugu herritarrekin. Kanpaldian gehien kostatzen dena da bertako herritarrekin harremanetan jartzea. Hainbat tokitik etortzen den jendea da eta kanpotik datozen horien itxura, askotan, muga bat da harremanak egiteko. Hori dela-eta, batzarra deitzeaz gain, postontzietan ere informazioa utzi diegu herritarrei.

**"Bi asteko kanpaldia egin beharrean astebetekoa egingo dugu aurten"**

**"Zuzenean kaltetuak diren edo izango diren herriak aukeratzen ditugu urtero"**

**Hilaren 31n Bergaran egingo den manifestazioaren berri ere emango diezue...**

Bai, egun horretan obrak ikustera joango gara, jendeak obrak duen eragina ikus dezan. Plazatik irtengo gara, 17:30ean.

Opor sasoian bikotekidearekin ordu gehiago igarotzen ditugu, eta harremana zailagoa izan daiteke horregatik. Arrazoi hori dela-eta ugaritzen doaz banaketak opor sasoian. Aurretik datozen arazoak azaleratu egiten direla dio Sara Vitoria psikologoak. Hala ere, eta era berean, dio, baina, bikotea ondo badago "gehiago disfrutatuko" duela oporretan.

**Sara Vitoria** > Psikologoa

# "Bikoteak lehendik arazoak baditu, azaleratu egingo dira opor sasoian"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

**Arrasatearra da Sara Vitoria psikologoa eta Arrasaten dauka kontsulta. 11 urte daroatza kontsultarekin. Familia eta bikote terapia da haren espezialitatea. Bikoteen harremanez eta banaketez jardun dugu harekin, opor sasoian ugaritu egiten dira-eta banaketak. Goiena Telebistako *Magazinea*-n elkarrizketatu du Arritxu Barrusok. Han esandako pasarteekin osatu dugu elkarrizketa.**

**Udan bikote gehiago apurtzen dela esaten da. Egia da?**

Bai. Bueno, zehatzagoak izateko, opor sasoi guztietan gertatzen da hori. Oporren ostean, zehatzago: udan eta Gabonetan. Bikoteek denbora luzeagoa ematen dute elkarrekin opor luzeetan. Urtean zehar ez da izaten horrenbesteko astirik elkarrekin egoteko, umeak, lana, etxeko lanak… direla-eta. Eta, hala, oporretan joaten garenean denak batera gogorra izaten da horrenbeste ordu elkarrekin igarotzea.

**Zein adinetakoak dira banaketa kasu gehienak?**

Batik bat, 30 eta 45 urte bitartekoak. Azkenaldian, ordea, gehiago dira ezkonberriak, urtebete edo urte bi ezkonduta daroatzatenak.

**Bikoteen arteko liskarrak areagotu egiten dira oporretan?**

Bai, baina, bestetik, oporrak disfrutatzeko dira. Bikoteak arazoak baditu, azaleratu egingo dira oporretan, baina bikotea ondo badago, gehiago disfrutatuko du oporretan.

**Umeak izateak eraginik badauka bikotea apurtzerakoan?**

Ez, bikotea ondo badago. Bai, txarto badago. Izan ere, askotan, bikotea salbatzeko ekartzen ditugu umeak. Umeekin, bikotekideen arteko harremanak zaildu egiten dira, negoziazioak eta eztabaidak sarriago gertatzen dira, batez ere pertsona gehiago direlako elkarbizitzarako.

**Infideltasunak areagotu egiten dira udako oporretan?**

Bai. Baina, jeneralean, infideltasunak lehendik datoz, bikotekidearekin gutxiago egoten garenean. Oporretan, berriz, bikotekidearekin gehiagotan egoten garenez, kontrol handiagoa daukagu eta errazago harrapatzen dugu infidela.

**Zenbateraino da normala eztabaidak edo liskarrak edukitzea bikotekidearekin?**

Normala da liskarrak edukitzea, batez ere komunikazioa badago. Gainera, ona da hori. Urtean zehar asko eztabaidatzea ona da eta gomendagarria da, gainera, zenbait psikologoren ustez. Izan ere, eztabaidatzeak esan gura du akordiotara heltzeko borondatea dagoela. Jakina, eztabaidak modu orekatuan, formak zainduz egin behar dira ez bestea mintzeko helburuarekin.

**Udako oporretan zeintzuk izaten dira arazo ohikoenak?**

Komunikaziorik eza, bikotekidearen esanak edo jarrerak mehatxu moduan hartzea, bikotekidea eta bikote harremanak idealizatuta edukitzea… Oporretan, bikotekidea benetan zelakoa den ikusten dugu. Urtean zehar ez daukagu astirik bikotekidea sakon ezagutzeko. Batez ere, daukagun denbora apurra elkarrekin egoteko telebistari begira ematen dugulako. Telebistaren aurrean afaltzen dugu, ondoren telebistaren aurrean jartzen gara egongelan eta, azkenik, oheratu egiten gara. Ez dugu astirik hartzen gure kontuez jarduteko.

**Plana garrantzitsua da?**

Bai. Ez horrenbeste toki batera edo bestera goazen. Inportantea da, batez ere, norberarendako tartea topatzea. Ez da beharrezkoa 24 orduak elkarrekin egotea, ezta plan guztiak elkarrekin egitea. Esate baterako, bati igerilekua gustatzen bazaio eta besteari hondartza, bada, egin daiteke bakoitzarendako plana: bata igerilekura eta bestea hondartzara; edo bata mendira eta bestea korrika egitera… Bikotearendako uneak eta bakarka egotekoak ondo uztartzea da kontua.

**Askotan, bikotekidea idealizatu egiten dugu. Oporrekin ere horixe gertatzen zaigu?**

Beti. Perfektuak izan behar dute oporrek. Helburu horrekin antolatzen ditugu-eta. Baina, gero, errealitatea bestelakoa da: euria egiten digu, hotela kaskarra da… Pentsatzen dugu opor egunak ondo joango zaizkigula eta hori ez da beti horrela edo ez, behinik behin, egun guztietan. Egia da, halere, oporretan normaltasunetik, egunerokotasunetik, errutinatik ateratzen garela.

**Oporretatik bueltan, bakarrik egoteko gogoa ere izaten dugu eta, askotan, bikotekideak ez du hori ulertzen.**

Baina normala da bakarrik egon gura izatea. Urtean zehar ere ulertu behar dugu bikotekideak bakarrik egoteko momentuak behar dituela: bizikletan ibiltzeko, paseatzeko, mendira joateko… Elkarren arteko errespetuan oinarritutako harremana da bikotea.

**Zelako kezkekin etortzen dira? Zeintzuk dira arazo ohikoenak?**

Batez ere errespetu falta, komunikazio falta; batzuetan gurasoak ere badira liskarren iturburu, bikoteen harremanetan larregi sartzen direlako…

**Oro har, zertara edo zergatik datoz bikoteak zure kontsultara?**

Beste aukera bat behar dutela ikusten dutelako, bikote harremanean sinisten dutelako, aurrera egin gura dutelako, galdutako konfiantza berreskuratu gura dutelako… Eta, gehienetan, emakumeak konbentzitu duelako gizonezkoa. Psikologoa emakumezkoa bada gehiago kostatzen zaie gizonezkoei, uste dutelako bikotekidearekin aliatuko garela.

**Apurtzeko bidean zeuden bikote askoren harremanak bideratzea lortu duzu?**

Esango nuke %90ean aurrera egin duela bikoteak gure kontsultara etorri ostean. Edozelan ere, ez da nire arrakasta, bikotearena baizik, ni bideratzaile edo laguntzailea besterik ez naiz.

**Bikotea apurtzeko arrazoi nagusirik bada?**

Elkar ez ulertzea, batik bat. Komunikaziorik eza. Gero, garrantzitsuak dira infideltasunak, kontsumo arazoak, bikotekide baten gaixotasuna, umeak…

**Gaur egungo gazteak errazago banantzen dira?**

Bai, erraztasun handiagoz hartzen ditugu era horretako erabakiak. Bestalde, emakumea ekonomikoki independenteagoa da orain, oro har. Eta gauza batzuk ez daude agoantatzeko prest.

**Bikote zoriontsuaren eredurik edo paradigmarik bada?**

Pertsona sanoa eta egonkorra baldin bada eta bikotea antzerakoa bada, bikoteak aurrera egingo du.

**Ohiturarik badugu profesional batengana joateko?**

Bikoteak etorri etortzen dira arazoak konpontzeko laguntza eske, baina nik kalean arazoak dituzten bikote gehiago ikusten ditut. Gurera etortzen direnak gutxi batzuk direla esango nuke. Ekonomikoki gastu handia da eta edozeinek ezin dio aurre egin.



Sara Vitoria psikologoa Goiena Telebistan. ARRITXU BARRUSO

UMEAK

**"Umeekin, bikotekideen arteko harremanak zaildu egiten dira"**

EGONKORTASUNA

**"Pertsona sanoa eta egonkorra bada eta bikotekidea antzerakoa bada, bikoteak aurrera egingo du"**

**goiena.net/bideoak**
Elkarrizketa osoa, webgunean.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

## kale inkesta

# Zenbait azterketak diote bikote-harreman gehien udako oporretan hausten direla. Zer deritzozu?



**Nuria Fernandez**
Langilea
Arrasate

Nik uste dut hori bikotearen araberakoa dela. Bikote-harremana osasuntsu badago, oporretan hobeto egon beharko litzateke; ez duzu lanera joan beharrik eta denbora guztia daukazu bikotearekin egoteko.



**Mercedes Bellido**
Langilea
Salamanca

Urtean zehar ez dugu denbora asko pasatzen bikotekidearekin, eta uste dut normala dela oporretan eztabaida gehiago egotea. Niri ez zait horrelakorik gertatzen, baina pentsatzen dut normala dela.



**Juan Mari Egaña**
Langilea
Arrasate

Ez da ona bikotekidearekin denbora gehiegi pasatzea. Oporretan bikotekideaz gain, norberarendako ere denbora gehiago hartu beharko genuke. Dena dela, uste dut oporretako arazoak lehenagotik datozela.



**Maria Jesus Balanzategi**
Langilea
Arrasate

Ez dut uste horrenbesterako denik. Eztabaida gehiago izatea normala da baina, bikote-harremana ondo badago ez dut uste arazo larriak sortzen direnik. Harremana hausten bada arazoa lehenagotik dator.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Etxeazpia kaletik irteteko ispilua okertuta**

Arrasatear batek idatzi digu esanez Arrasateko Etxeazpia kaletik autoarekin irtetea oso arriskutsua dela. Irakurle horrek dio, behetik gora autorik datorren ikusteko ipini zuten ispilua okertuta egoten dela beti. Gaineratu du autoak gaizki aparkatuta egoten direla eta hori horrela, askotan autoa errepide erdiraino atera behar izaten dela, horrek dakarren arriskuarekin.

OÑATI

**> San Martin auzoko etxebizitza berrietako lorategiak**

Oñatiko San Martin auzoan paseoan ibiltzen den irakurle batek deitu digu esanez lorategiak oso egoera txarrean daudela: "Belarra oso luze dago, eta umeen karrotxoarekin pasatzea ere askotan zaila izaten da". Oñatiar horrek loratEgiak txukuntzeko eskatu du, bere ustez pena delako horrelako gune berri bat horren zatar egotea.

ARRASATE

**> Kulturateko pintadak direla-eta, haserre**

"Atsekabetu egin nintzen Kulturate moduko eraikin polit batean pintadak ikusi nituenean". Horixe esan digu irakurle batek. Arrasatear horrek ondo ikusten duela norberak uste duena aldarrikatzea, baina pankartak erabiltzearen alde egiten du: "Arrasaten ez dago inolako arazorik pankartak ipintzeko; ez dut beharrezkoa ikusten horrelako eraikin batean pintadak egitea".

## usteak uste

**Arritxu Barruso**

# Saihesbidera paseoan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren azken ideia izan da errepide berriak autoendako inauguratu aurretik herritarrendako zabaltzea; paseo bat ematen duten bitartean azpiegitura berria ezagutu dezaten. Donostiako bigarren saihesbidearekin egin zuten lehenengo proba. Egunkari eta telebistetan sekulako arrakasta izan zuten irudiok: herritarrak, goiz pasa, errepidean zehar paseoan. Probaren arrakasta ikusita Arrasateko Olandixoko tunelarekin ere gauza bera egin dute aste bukaera honetan. Ez nuen uste irudia errepikatuko zenik, baina arrasatearrek ere ez zuten hutsik egin eta zapatu goizean Olandixoko tunela jendez beteta topatu genuen. Inguruko mendietara barik, Olandixoko tunelera joan ziren asko. Aitortu behar dut irudia dibertigarria eta kuriosoa dela.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Etorkinen antolakuntza

"Orain dela lauzpabost urte hasi ginen hemen cricketean jokatzen, baina azkenaldian askoz ere hobeto antolatzen gara, eta txapelketara joaten ere hasi gara, adierazi du talde ofizial egiten dutenean presidente lanak egingo dituen ...."

Goienkaria > 2010-07-23




Bergarako pakistandar batzuk cricketean jokatzeko kirol talde bat ofizialki antolatzeko asmoa dutela jakitea pozgarria iruditu zait. Ezagutzen dut Arrasaten cricketean jokatzen duen beste pakistandar talde bat, hau baina oraindik ez da elkarte ofizial izatera iritsi.

Orain arte etorkin batzuk bakarrik antolatu dira elkarte juridikotan. Corazón de Encina extremadurarren kultur elkartea eta Centro Cultural Al-Andalus kultur elkartea, andaluzen kultur elkartea adibidez. Bide batez, esan dezadan oso egokia iruditzen zaidala euren egoitzak aurkezteko modua: izena gaztelaniaz eta euskaraz daukate eta jaiak ospatzerakoan euren zutoihala jatorriko komunitatearen eta harrera eman dienaren zutoihalen artean jartzen dute. Dotore, alajaina!

Horrelako jarrera batek euskal hiztunek euren artean sartzeko ateak irekiak dituztela adierazten du, duda barik. Noski, ez zatekeen bestela izan, eurak ere gure artean sartzeko ateak zabalik baitituzte.

> **"Herrimina asetzeko... talde izaera duten kultura adierazpenak mantentzea... zailagoa da antolatu ezean"**

Azken urte hauetan Debagoiena eskualdera beste euskal herritar batzuez gainera, hiru mila pertsonatik gora etorri dira. Eta kultura eta sorterri ezberdinetakoak dira, zalantzarik gabe. Horien artean: portugaldarrak, marokkoarrak, katalanak, senegaldarrak, pakistandarrak, boliviarrak... beraz aniztasuna hemen bertan da.

Norbere sorterritik kanpora bizi denak jasan dezakeen herrimina asetzeko eta euren kulturari eusteko antolatzea garrantzitsua da. Kulturaren ezaugarri batzuk familian gorde daitezke, baina talde izaera duten kultura adierazpenak mantentzea (kirola, dantza, musika, hizkuntza ... ) zailagoa izaten da antolatu ezean. Herriminari ez ezik, iraupenerako beste beharrizan askori erantzun egokia bilatzeko eta emateko ere alde ederra dago antolaketa fidagarri bat izanez gero. Hori argi dauka kanpoan bizi izan den edozein pertsonak.

Elkartea osatzeko lanean animoak pakistandarrei, laguntzeko prest gaituzue.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Lander Munagorri, Arrritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> BERGARA**
Herria turismorako erakargarri egiteko plangintza egin du Udalak **> 16-17**



**> ESKORIATZA**
Santa Anan zeuden filmak emateko makina zaharrak jaso dituzte Ibarraundi museoan **> 19**




**> ARAMAIO**
Bihar, martitzena, Gasteizen protesta egingo dute (10:30), errepidearen auziarengatik **> 20**



Zerrajerako bizilagunak jaietan sobratutako janaria jateko elkartu ziren egubakoitz iluntzean. JULIO CALLEJA

**ARRASATE** > ZERRAJERAKO JAIAK

# Uztaileko bigarren barikuan auzoko jaiak ospatu nahi dituzte urtero

**AUZO BERRIAK**
Zerrajerako bizilagunek faltan igartzen dute auzoko jaiak ospatzea

**AURTEN LEHENA**
Aurreko egubakoitzean egindako probarekin pozik daude

**TXAPELAREKIN**
Derrigorrezkoa izango da txapela janztea jaietan parte hartzeko

**ARRITXU BARRUSO** > ARRASATE

Uztaila iristearekin bat auzoetako jaiak iristen dira. Kasu askotan, gainera, horiexek dira herritarrei gehien gustatzen zaizkienak eta gehien gozatzen dituztenak: umetako lagunekin elkartu, jolasetan parte hartu, herri bazkari eta afarietan bizilagunekin berriketan egin, erromerietan berandura arte dantza egin... Azken batean auzoetako jaiak gertukoenak izaten dira, eta bizilagun guztien artean antolatutakoak. Kasu askotan gainera, jaiak aspalditik datoz eta oso sustraituta daude, urteroko hitzordu bilakatu dira.

**AUZO BERRIAK**

Urteekin baina, herriak aldatuz joan dira, eta han eta hemen auzune berriak sortu dira. Jaioberriak dira, eta oraindik ez dute egutegian auzoko jairik, baina denbora kontua izango da hori ere. Egutegian eguna hartzen lehenak Arrasateko Zerrajerako etxebizitzetako bizilagunak izan dira. Uztaileko bigarren egubakoitza auzoko egun bilakatu nahi dute. Olaia Balanzategi eta Miren eta Nerea Gartzia ahizpen eta Itziar Arkauzen ideia izan zen, eta bizilagunek gustura hartu zuten proposamena: "Ni Maalako alaba naiz eta Miren eta Nerea Ferreriaskoak. Ume-umetatik bizi izan ditugu auzoko jaiak eta orain faltan igartzen ditugu. Beti esaten genuen Zerrajerako jaiak antolatu behar genituela, eta aurtengoa lehenengo proba izan da. Pasa den aste bukaeran, egubakoitzean, festa txiki bat antolatu genuen", azaldu digu Olaia Balanzategik.

Uztaileko bigarren asteburua aukeratu izanak ere badu bere arrazoia: "Garai batean Zerrajeran abuztuaren 10ean irabaziak banatzen ziren eta egun osoko festa egiten zuten langileek. Egun horretan gehienok oporretan egongo gara, beraz, festa hilabete aurreratzea erabaki dugu. Gure asmoa da urtero-urtero uztailaren bigarren egubakoitzean ospatzea jaia, aurten hirugarrenean egin badugu ere".

**TXAPELA BURUAN**

Lehenengo jaiak izateko giro ederra egon zen Zerrajeran; bizilagunek ondo erantzun zuten. "Oso xumea izan zen eta nahiko inprobisatua. Zaku eta balde batzuk eraman genituen plazara umeekin jolasak egiteko, eta ondoren afaria egin genuen guztion artean eramandako tortilla, urdaiazpiko eta horrelakoekin. Jende dezente gerturatu zen, festaren berri ez zutenak ere geratu ziren. Gaueko hamabiak arte luzatu zen jaia". Erromeria handirik izan ez bazen ere, musika eta dantza ere izan zituzten, txistu eta atabalarekin.

Badirudi gainera, Zerrajerako jaiek bereizgarri bat izango dutela; jaietan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da txapela eramatea. Izan ere, aldarrikapenerako esaldia asmatu du bizilagun batek: *Txapela buruan eta jaiak Zerrajeran*!

**DATORREN URTEAN GEHIAGO**

Aurtengo proba ondo joan dela ikusita, bizilagunen asmoa da hurrengo urteetan ere errepikatzea eta auzoko jaiak sortzea: "Ekimena indartzen joatea da gure asmoa. Etxebizitza bloke bakoitzeko arduradunekin elkartuko gara eta jai batzorde bat eratzen ahaleginduko gara".

Gauzak ondo badoaz, beraz, urte batzuk barru Zerrajerako jaiak Ferreriasekoak edo Maalakoak bezain sustraituak egongo daitezke. Horietan ere, duela urte batzuk, horrelaxe hasiko ziren-eta jaiak. Garrantzitsuena hastea da.

**BERGARA** > BASALGOKO SANTIAGO JAIAK

# Erretiratuen bazkariarekin amaituko dituzte gaur jaiak



Argazki oinaaaaaaaaaaaaaaaa. GOIENKARIA



Argazki oinaaaaaaaaaaaaaaaa. GOIENKARIA

## Auzotarrak eta auzoan bizi izandakoak elkartu ziren atzo, Basalgon egin zuten bertso bazkarian

**ANDER MONEDERO** > BERGARA

Urtero moduan makalaren jasotzearekin eta etxafuegoekin hasi zituzten, zapatu arratsaldean, Bergarako Basalgo auzoko jaiak. Dena dela, domekakoa izaten da Basalgon jaietako egun handia. "Egun polita izaten da, kanpoan bizi diren auzotarrekin elkartu, bazkaldu, bertsoak entzun, dantza apur bat egin...", kontatu zigun atzo Ane Miren Seminario bergararrak.

Atzo ere horrelaxe izan zen, eta goizean goizetik eliza inguruan talde polita bildu zen. Bertsoak Peñagarikano eta Amurizaren ahotik etorri ziren eta erromeria ere izan zuten bazkaldu ostean.

Basalgotik kanpo bizi direnak etxera itzuli arren, bertakoek festan jarraituko dute gaur. Mezaren ostean, erretiratuek eta jai batzordeko kideek bazkaria egingo dute. Trikiti doinuek lagunduta jaietako azken egunean ere ez da dantzarik faltako.

**Anjel Mari Peñagarikano** > Bertsolaria

## "Auzo txiki guztiek dute xarma berezia, lastima husten ari direla"

**A.B.** > BERGARA

**Peñagarikanok Amurizarekin batera bertsotan jardun zuen Basalgon.**



A.B.

**Basalgo eta Bergara ondo ezagutzen dituzula esan duzu bertsotan?**

Bai. Behin baino gehiagotan etorri naiz. Nire emaztearen osaba bat gainera, 25 urtez apaiz izan zen Basalgon eta etortzen naizen bakoitzean oso ondo hartzen naute.

**Badu zerbait berezia orduan...**

Auzo eta herri txiki guztiek dute xarma berezia. Lastima da husten ari direla, eta gaztetasunik ez dagoen lekuan ez dago festarik. Auzoetako jaiak berreskuratzen ari dira, baina ez behar beste.

INKESTA



**Jone Lete**
Ondarroa

"22 urtera arte Basalgon bizi izan nintzen; gero Ondarroara joan nintzen. Askotan etortzen gara jaietara. Egun pasa etorri gara. Mezetan izan gara eta bazkalostean itzuliko gara etxera".



**Joxe Mari Ugarte**
Gasteiz

"Emaztea Basalgokoa da eta noizean behin etortzen gara, Gasteizen ere Santiago eguna ospatzen da-eta; han berakatzak eta hemen txorizoa. Baserrian bazkaldu eta etxera itzuliko gara".



**Ane Miren Seminario**
Bergara

"Auzotarrak gara eta urtero hartzen dugu parte jaietan: eliza mezetarako apaindu, bazkarira joan... Egun polita izaten da, auzotik alde egindako asko itzuli egiten direlako gaurko egunez".



Auzotarrak berakatz-zopa jaten egubakoitz iluntzean egindako afari herrikoian. JULIO CALLEJA

**ELGETA** > GOIMENDI AUZOKO JAIAK

# Berakatz-zopa hasieran, erromeria Santixauen amaieran

## Elgeta eta Bergara artean dagoen Goimendi auzoan Santixau jaiak ospatu dituzte asteburuan

**L.M.** > ELGETA

Santixau jaiak ospatu dituzte aste bukaera honetan Goimendi auzoan. Festak berakatz-zopa-rekin hasi ziren, zapatu iluntzeko afari herrikoian. Adin guztietako auzotarrak bildu ziren plazan.

Domekan ere izan zen festetarako aukera. Bertsolariak,haurrentzako jolasak, herri kirolak eta bolo txapelketa izan ziren Santiago bezperan. Festa ospakizunei amaiera emateko, domeka iluntzean erromeria egin zuten gaueko ordu txikiak arte.


Jendetza elkartu zen Atxorrotzeko zelaian, Bizardunak taldearen kontzertua ikusteko. IMANOL SORIANO


Bisitariak gazteluko indusketen gaineko azalpenak entzuten. IMANOL SORIANO


Nafarroako bandera ipini zuten, gazteluaren jatorriaren ikur moduan. IMANOL SORIANO

**JAIAK** > ERREKAN GORA JAIALDIA

# Historia eta jaia uztartu zituzten zapatuan Atxorrotzen, Errekan Gora jaialdiarekin

Parrandarako kokagune paregabe bilakatu zen Atxorrotz mendia zapatuan; jendetza elkartu zen

**UBANE MADERA** > ESKORIATZA

Ezohiko jai jendetsua egin zuten zapatuan Atxorrotz mendian (Eskoriatza) Errekan Gora jaialdiaren eskutik.

Eguerdi parterako dagoeneko 50 bat lagun zebilen Atxorrotz inguruan, gehienak bertako gazteluaren gaineko indusketen azalpenak entzuten. Horren ostean, eta gazteluaren jatorri nafarra gogora ekarri eta aldarrikatzeko, izugarrizko banderatzar nafarra ipini zuten mendiko haitzetan. Hura izan zuten gidari Kurtzebarritik Atxorrotzera oinez joan ziren lagunek.

**BIZARDUNEKIN KABITU EZINDA**

Baina duda barik, Atxorrotzeko izarrak Bizardunak talde nafarreko kideak izan ziren. Taula gainean justu-justu kabitu ziren eurak, eta antzera ibili ziren ikusleak: pareko zelaian kabitu ezinda eta dantza batean.

**DIAZEN KONTZERTU BARIK**

Ezustekoa, berriz, Mario Diaz eta Chambaoko Lamari abeslariek eman zuten. Sorpresa moduan Azkoaga Enea hotelean jo behar zuen Diazek zapatu gauean, neskalagunaren kolaborazioarekin. Azkenean, baina, ez zuen kontzerturik egin. Lekukoen arabera, Mario Diaz minduta sentitu zen ikusi zuenean Eskoriatzan eta inguruan Chambaoko Lamari ikusteko zain zeudela, eta ez bere kontzertuaren zain.


JULIO CALLEJA

**ARRASATE** > MAALAKO JAIAK

## Jubilatuen luncharekin amaitu dira Maala kaleko Madalena jaiak

Arrasateko Maala kaleko Madalena jaien barruan, jubilatuei zuzendutako luncha egin zen domeka eguerdian. Giro ederrean egon ziren kaleko adinekoak, Plus Ultra tabernan eskaini zitzaien otorduan.

Sabela bete aurretik ordea, mezetarako deia zeukaten. Bertan, azkeneko urtean Errabalean hil diren guztien oroimenezko eukaristia egin zen. Eguerdiko luncharekin amaitu dira ostegunean hasi ziren Maala kaleko Madalena jaiak.


LANDER MUÑAGORRI

**OÑATI** > MADALENAK

## Jai giro ederra Santxolopeztegin

Santxolopeztegi auzoan Madalenetako jai ospakizunak izan dira asteburu honetan zehar. Egubakoitzean hasi ziren jaiak, eta domekan amaitu. Hiru egunetan zehar adin eta gustu anitzentzako ekitaldiak antolatu dira; Gorriti bere animaliekin, puzgarriak, rock kontzertuak, herri afaria, aizkolariak eta batez ere, giro ona. Zahar zein gazte, haur zein guraso, denek eduki dute euren txokoa Santxolopeztegin. Antolatzaileak euren aldetik, gustura agertu dira jendearen partaidetzarekin.

**ZERBITZUAK** > INEM-EN WEBGUNE BERRIA

# Enplegu zerbitzu publikoaren webgunea erabiltzen erakutsi guran

Internet bidez, bulegora joan barik egin daitezke enplegu zerbitzuarekin egin beharreko guztiak: *redtrabaja.es* da helbidea

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Lanpostu eskaintzak, ikastaroen eskaintzak, kontratuak, langabe txartelak berritu eta oro har, INEMen bestelako zerbitzuen erabilera bideratzeko webgune berria abiarazi du Estatuko enplegu zerbitzu publikoak: *redtrabaja.es*. Orain, INEMen izena ematen duten guztiei erabiltzaile izena eta pasahitza ematen dizkiote, eta horren bitartez, Internet erabilita egin ditzakete INEMekin egin beharreko guztiak, bulegora joan barik.

**IKASTAROAK KULTURATEN**

Bada webgune berria erabiltzen erakutsi edo laguntzeko monitorea ipini dute Arrasaten. Kulturateko informatika gelan dihardu lanean joan den asteaz geroztik. Joxema Bergaretxe du izena, eta bere zeregina da *redtraja.es* webgunearen funtzionamendua erakustea beharra daukan edozein herritarri.

Ikastaro bitartez egiten du hori. Joan den astean hasi eta abendura arte izango diren ikastaro bitartez. Bi orduko eskolak dira: egunero, 10:00etatik 12:00etara. Eta ikastaroak, bi mailakoak: "Horiak eta berdeak. Ikastaro horiak dira Interneten gaineko ezer ez dakitenendako. Eta berdeak, berriz, Internet erabiltzen jakinda, *redtrabaja.es* webgunea ezagutu gura dutenendako", azaldu du begiraleak. "10 ordu ditu bakoitzak", gaineratu du.

**IRAILEKO TALDEAK EGIN BARIK**

Dagoeneko badu ikasle talde bat, 5-6 lagunekoa. Baina horiek asteon bukatuko dituzte eskolak, irailera arte oporrak hartuko dituzte-eta. "Haileko taldeak antolatu barik daude", dio Bergaretxek. Beraz, norbaitek gura badu halakoren batean parte hartu,orain dauka izena emateko aukera: "Enplegu zerbitzuen bitartez: Udal Enplegu Sailean, Langain, Kutxa Zeharon… halakoetan izena ematen dutenak dira etor daitezkeenak, eta enplegu zerbitzuek eurek bidaltzen dizkidate", azaldu du.

**ENPRESENDAKO**

Bergaretxek gaineratu du enpresendako ere badela *redtrabaja.es*. Esaterako, enpresek euren lan eskaintzak egin ditzakete webgune horretan, informazioa zuzenean eurek sartuta, Internet erabilita, jakina. Hori egiteko, haiei ere erabiltzaile izena eta pasahitza emanten dizkiete.



Joxema Bergaretxe, Kulturateko informatika gelan, *redtrabaja* webgunearen gaineko zalantzak argitzen. U.M.

LANPOSTU PUBLIKOAK

## Bost lanpostu publikorako deialdia

*Redtrabaja* webguneak abiarazita dauka zerbitzua. Bertan argitaratu eta bideratu dituzte, esaterako, bost lanpostu publikorako deialdiak, Arrasateko Udalean jarduteko: gizarte hezitzailea, basolanetako arduraduna, peoia, elektrikari / delineatzailea eta delineatzailea. Lanpostuotarako izenematea itxita dago, Udalaren nahia da-eta, irailean jardunean hastea. Asteon jakinaraziko dute izena eman dutenen artean zeintzuek betetzen dituzten baldintzak, eta horren arabera erabakiko dute gero ze motako froga egin beharko duten lanpostua eskuratzeko. Peoi lanposturako, adibidez, 280 lagun baino gehiagok eman du izena.



JULIO CALLEJA

## Igogailua itxita, abuztu erdiko bi asteetan

Itxi egingo dute Bizkaia etorbideko igogailu publikoa abuztuaren erdialdeko bi asteetan. Bestela esanda, eta obrak eragindako ezustekorik ez bada, abuztuaren 9tik 22ra igogailu hori ezin izango du inork erabili. Solairu bat gehitzeko egiten dabiltzan obrek eraginda itxi beharko dute. "Barruko konponketak egin eta igogailua ipiniko dute Oruna enpresakoek", azaldu dute obrako ordezkariek. Bederatzi bat metroko altuera dabiltza gehitzen (solairu bat), oinezkoen pasabideraino irits dadin.

**ARRASATEKO UDALA**

## Euskaltegi eta kiroldegiko tasa berriak

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ezohiko egunean (gaur, astelehena) eta ezohiko orduan (09:00etan) deialdia egin du alkatetzak opor aurreko azkeneko osoko bilkura egiteko.

Gaien artean, diru kontuak berbagai izango dituzte. Esaterako, datorren ikasturterako kiroldegiko eta euskaltegiko tasak zehazteko proposamena aztertuko dute.

**UDALBILTZA**

Zerbitzuen atalean, Gesalibarrera eta ospitale psikiatrikoetara joateko taxibus zerbitzuarekin jarraitzea proposatuko dute. Eta politikari dagokionez, bi mozio aurkeztuko dituzte. Bata EAJk aurkeztuko du, Heldu zerbitzua ixteko Jaurlaritzaren akordioaren gainean. Bestea alkateordeak aurkeztuko du, Udalbiltzaren gainekoa.

**DANBORRADA**

## Jantziak bueltatzeko eskatu du SUDC-ek

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Sanjuanetako danborradan erabilitako jantziak bueltatzeko deia egin du SUDC elkarteak. Orain pare bat aste amaitu zen jantziok batzeko kanpaina, baina oraindik jantzi guztiak ez dituztela jaso adierazi dute SUDC elkarteko ordezkariek. Hain justu, haur danborradako 40 bat jantzi jasotzea falta zaie oraindik.

Bada jantziok dituztenei eskatu gura diete eraman ditzatela SUDCek Pablo Uranga kalean duen egoitzara, gaurtik egubakoitzera bitartean, 18:30etik aurrera.

**50. URTEURRENA**

Bestalde SUDCekoek gogorarazi gura dute abuztuko oporren bueltan hasiko direla danborradaren urrezko ezteien gaineko ospakizunak prestatzen.

**Iñaki Gurrutxaga 'Harristi'** > Ferrerias kaleko Jai batzordeko kidea

# "Duela 23 urte bildu ginen jende bera gaude egun Jai batzordean"




*Harristi*, Ferrerias kalea atzean duela. JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**50. urtebetetzeko ospakizunak amaitu ostean, errealitatera bueltatu da Iñaki Gurrutxaga *Harristi*. Hau da, herrigintzan lan egitera. Ferrerias kaleko jaiekin ari da, gaur ospatuko diren festetan dena ondo irten dadin. Herriko kale ezagunenetariko festez egin dugu berba.**

**Badago berritasunik aurtengo egitarauan?**

Egitaraua antzerakoa izaten da urtero. Kontuan izan behar da egun bakarra dela eta ezin daitekeela ekitaldi askorik antolatu. Horrez gain, krisia dela-eta laguntza gutxiago jasotzen dugu Udaletik. Era berean, dirulaguntza txikiagoa bada ere, asko eskertzen dugun laguntza da; hori barik ezingo genuke jaia antolatu. Hala ere, konpartsa txikiaren kalejira sartu dugu egitarauan, hori da berritasun nagusia.

Bestalde, jaietako sorginaren kamiseta ez dugu egiten azken urteetan. Hasieran saltzen ziren, baina azken urteetan salmentak asko jaitsi ziren...

**Afaria eta osteko dantzaldia, beraz, ekitaldi jendetsuena.**

Hala izango da, urtero moduan. Aguraingo Sarayola *catering* enpresak emango du afaria. Azken hiru urteetan eurekin egin dugu Ferreriasko afaria eta oso gustura gaude.

**Noiztik Ferrerias kaleko jaiak?**

Antzinako jaiak dira, baina hainbat urtez desagertu egin ziren. Hala, duela 23 urte udaletxeko aretoan bilera bat deitu nuen jaiak berreskuratzeko asmoz. Eta oker ez banabil, bilera hartan elkartu ginen guztiak egun ere batzordeko kide gara. Jende oso jatorra eta langilea da, oso pozik egiten dut lan eurekin. Gainera, jende gaztea ere sartu da, eta hala izan behar du.

**Nondik dator jaiek kubatar festarekin duten harremana?**

Uztailaren 26an Santa Ana eguna ospatzen dugu. Eta egun horretan Kubako festa nazionala denez, keinu bat egiten diogu Kubari; alde zaharreko tabernetan mojitoa egongo da.

**Ezer gaineratu gura duzu?**

Arrasatear guztiak gonbidatu gura ditut astelehenean [gaur] Ferrerias kalera hurbil daitezen, giro ona izango da-eta. Ea eguraldiak laguntzen digun...

> **"Dirulaguntza txikiagoa da, baina laguntza hori barik ezinezkoa litzateke jaiak antolatzea"**

> **"Kubako festa nazionala denez, keinu bat egiten diogu Kubari; tabernetan mojitoa egongo da"**

## Ferrerias kaleko jaiak: uztailak 26

**9:00** Etxafuegoak.
**12:00** Txistularien kalejira
**17:00** Haur jolasak:
-Zaku lasterketa
-Abiadura lasterketa
-Askotariko jokoak
-Txokolate-jana.
**19:00** Txistularien kalejira.
**19:00** Herri poteoa.
**19:00** Ferrerias kaleko hildakoen aldeko meza, parrokian.
**19:15** Konpartsa txikien kalejira.
**21:00** Herri afaria.
**21:00** Dantzaldia, Ferrerias kaleko plazatxoan.

OHARRA: alde zaharreko zenbait tabernatan mojitoa dastatzeko aukera izango da.

**KULTURA**

## Urtebetez egon ostean, 3 aretoak agur esan du

Aretoa kudeatu dutenek ez dute baloraziorik egin gura izan, "oraingoz"

**J.B.** > ARRASATE

Herriko musika areto bakarrak ateak itxi ditu. Azken urtean askotariko zuzeneko musika eta bestelako ekintzak –herriko moda diseinatzaileek egindako moda ikuskizuna, esaterako– antolatu dituzte. Hala ere, uztaila izan da azken hilabetea eta irailetik aurrera, erreleborik ezean, ez da kultura eskaintzarik izango.

**3.60 ARETOTIK, 3 ARETORA**

Duela urtebete 3.60 aretoa izatetik 3 aretoa izatera pasa zen. Bost urtez izan zen zabalik 3.60 aretoa, baina orduan zeudenek uztea erabaki zuten, bestelako proiektuetan murgiltzeko. Aldaketa etorri zen, eta, beraz, kultura eskaintzak ez zuen eten luzerik izan. Bada, azken urtean aurrean aretoa ixtea erabaki dute, berriro. Ez dute baloraziorik eta itxieraren arrazoirik eman gura izan: "Ez oraingoz", adierazi dute. Azkenik, ez dakite erreleborik izango den edo ez.

## Txatxilipurdi "oso pozik" Orioko udaleku itxiekin



TXATXILIPURDI

Uztailaren 22an amaitu ziren Txatxilipurdiren udaleku itxiak. Bi txanda egin dituzte, hilaren 2tik 12ra eta 12tik 22ra. Lehen txandan 43 gaztetxo izan ziren eta bigarrenean, 45; Lau begirale izan dira txanda bakoitzean. Gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izan eta antolatzaileak "oso pozik" daude gaztetxoen erantzunarekin. Gainera, eguraldia lagun izan dute.

> ZINEMA

### Abuztura arte ez da filmerik izango Monterron parkean

Uztaileko zinema amaitu da Monterron parkean, eta abuztuaren 6ra arte ez da pelikularik izango. Lau film izango dira abuztuan, eta genero askotarikoak: abuztuaren 6an *Spanish Movie* –komedia–, hilaren 13an, *Yo, tambien* –amodioa eta drama–, hilaren 20an *Furia de titanes* –fantasia eta akzioa– eta azkenik, hilaren 27an, *Oceanos* –dokumentala–. Film guztiak 22:30ean izango dira, eta euria bada bertan behera geratuko da proiekzioa.

**OSASUNA** > YOGA ELKARTEA

# 30. urteurreneko ekintzak irailean ospatuko dituzte

Irailaren 20tik 24ra osasuna ardatz dituzten hitzaldiak egingo dituzte

**J.B.** > ARRASATE

Jose Luis Armendiak gidatu duen Arrasateko yoga elkarteak 30 urte bete ditu aurten. 1980an sortu zuen elkartea Armendiak; yoga erabat ezezaguna zen orduan, baina Armendiak berak jakinarazi duenez, 30 urteotan 5.000 pertsona inguruk eman dute izena yoga ezagutzeko.

Ibilbide luzea izan da Armendiarena, eta, urteurrena aprobetxatuz, erretiroa hartu eta elkartearen zuzendaritza orain arte presidenteorde izan den Antonia Nogueirasi uzteko unea dela erabaki du.

**HITZALDIEK, OSASUNA ARDATZ**

Irailaren 20tik 24ra hainbat hitzaldi antolatu dituzte yoga elkartean, data berezia ospatzeko. Hitzaldiok osasuna izango dute ardatz, eta, besteak beste, yoga eta pilatesa, buru-kontrola eta meditazioa, elikadura naturala, biodantza, diksha eta chakra izango dituzte aztergai. Gaiok jendaurrean lantzeko adituak gonbidatu ditu Arrasateko yoga elkarteak.

**UDALA** > ONDAREA ETA AZPIEGITURAK

# Herria turismorako erakargarri egiteko plangintza egin du Udalak

## Aurreikusten du Seminarioan Udal Liburutegia eta Zientziaren Museoa egitea, besteak beste

## Oposizioko alderdiek plangintzaren alde dauden ala ez gaur jakinaraziko dute, osoko bilkuran



Errege Mintegia da plangintzaren bihotza. Han kokatuko dira, besteak beste, Udal liburutegia et

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak Bergarako ondare historiko-artistikoa balio turistikoan jartzearen bideragarritasun plangintza egin du. Herriko ondarea horren aberatsa izanik etekin gutxi ateratzen zaiola uste du gobernu taldeak. Hala, daukagun horri etekina ateratzeko eta ditugun baliabideak ordenatzeko, epe luzerako plan estrategikoa egin du. Baina plan horrek ez du bakarrik ondarea erakusteko edo ondare hori balio turistikoan jartzeko; bergararron beharrei erantzuteko moduko plana ere izatea nahi du gobernu taldeak.

Horretarako, iaz, Stoa enpresa espezialdua kontratatu zuten eta urte hasierarako prest zeukan plana; *Bergarako ondare historiko-artistikoa balore turistikoan jartzearen bideragarritasun plangintza* deritzona, hain justu ere. Stoari dagokionez, enpresa horrek egin ditu, besteak beste, Ignaziotar Lurraldea proiektua, Eibarko Armen Museoa eta Jaengo Baeza eta Ubeda herrietako proiektu kulturalak.

Proposamenaren lanketa teknikoa Stoak egin badu ere, Udaleko Ondare batzordeko kideek zein alderdi politiko guztiek izan dute euren ekarpenak egiteko aukera. Hain zuzen, urte hasieran aurkeztu zizkieten Udaleko alderdi guztiei emaitzak. Horrekin guztiarekin, gaur, astelehena, ohiko osoko bilkurara eramango du plangintza gobernu taldeak, udalbatzaren onarpena jasotzeko.

**Herriko ondare historiko-artistikoa balio turistikoan jartzeko plana egin du Stoa enpresak**

**Errege Mintegia da planaren bihotza eta han kokatuko dira ekipamendu kultural nagusiak**

**Herritarren beharrei erantzungo dien plana ere izango da eta alde zaharra dinamizatu egingo luke**

### BI ARLOTAN BANATUTA

Nagusiki bi esparrutan banatzen da Stoak egindako proposamena: batetik, herrian dauden eraikinen banaketa egiten dute eta horietako bakoitzean ze kultura ekipamendu jar daitekeen proposatu; bestetik, hori guztia gauzatu eta gestionatzeko zer pausu eman behar diren ere azaltzen du.

Eraikinen banaketari dagokionez, Stoarentzat ezinbestekoa da –Udal Gobernuarentzat bezala–, Erregе Seminarioa, herriko ondarea eta turismoa balioan jartzeko. Stoaren txostenaren arabera, ezerk bereizten badu Bergara gainontzeko herrietako eskaintza kulturaletik, hori da Errege Seminarioan garatutako historia.

Zientzia eta hezkuntza arloetan, Bergara erreferentzi gunea izan da historian barrena. Esaterako, Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais-ek 1770ean sortu zuen Errege Mintegiaren jarduerari eta ekarpenei esker, Bergara XVII. eta XIX.mendeetako ikasketa eta ikerketa zientifikoaren gune garrantzitsuenetakoa izan zen.

Antzeko oihartzuna eta pisua izan zuen hezkuntza jarduerak ere. Mendetan Mintegiko eskaintza akademikoa nabarmendua eta bakarra izan da, eta zenbait kasutan aitzindaria; Industria Eskolaren kasua, esaterako. Horrekin batera, pertsonaia historiko ugari ere ibili da Errege Mintegiaren bueltan. Ezin da ahaztu, bestalde, Errege Mintegia kokatu zutela Jesusen Lagundiaren ikastetxea izandakoan, jesuitek 1597an sortua eta 1767an, Espainiatik erbesteratuak izatean, laga zutena.



San Pedroko Agoniako Kristoa. GOIENKARIA




Balizko plaka. GOIENKARIA

Horrekin guztiarekin, Stoak argi lagatzen du txostenean herriko ondarea balioan jarri nahi izanez gero, Errege Seminarioan kokatu behar direla hainbat ekipamendu kultural. Gainera, herriak ekipamendu kultural arloan dituen beharrei erantzungo liekela ere azpimarratzen dute Stoako adituek, eta plaza nagusia eta alde zaharra dinamizatuko liratekeela.

### SEMINARIOA NOLA EKIPATU

Stoak Errege Seminariorako aurreikusi duen ekipamendu kulturala honakoa da: Udal Liburutegia; bisitariendako zentro bat, non azalduko zaien herrian dagoen eskaintza; erabilera askotako areto bat; kafetegi bat; Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais-en artxiboa eta Zientziaren Museoa.

BALIO NAGUSIA ETA ERREFERENTZIA

## Errege Mintegia, Ilustrazio garaitik kultura, zientzia eta hezkuntzaren mintegi

Kultura, zientzia eta hezkuntza arloetan Bergara erreferentziagune izan da historian zehar eta hori hala izan da, hein handi batean, Errege Mintegiaren jarduerari eta ekarpenei esker. Hala, Bergara XVIII. eta XIX. mendeetan ikasketa eta ikerketa zientifikoaren gune garrantzitsuenetakoa izan zen. Eta antzeko oihartzuna eta pisua izan zuen hezkuntza jarduerak ere: Nobleen Mintegia, Batxilergoa, Industria Eskola eta abar.

Europako zientzialari ospetsuenekin harreman zuzena izan zuen Errege Mintegiak. Horrek ahalbidetu zuen mundu mailako ikerketak egitea eta, esaterako, wolframioa (gaur egun tugsteno izenaz ezagunagoa) bertan aurkitu izana. 1783an aurkitu zuten. Eta, hala, Bergara nazioartean ezagutarazi zuten zientzia arloko lehen mailako ekarpen horregatik. Hori guztia nabarmentzen du txostenak.

MARKAREN GARAPENA

## Bergarako Ideien Hiribildua

Bergarako ondare historiko eta artistikoa balio turistikoan jartzeko txostenak Ideien Hiribildua marka sortu eta garatzen du. Lau multzo tematiko zehazten ditu: Mugimendu Ilustratua (Argien Etxea, Euskal Oxford), Euskal Herriko zientziaren sorlekua (Errege Mintegiko bilduma zientifikoa), Idealistak Bergaran (San Inazioren atzetik eta Zazpiak Bat) eta Eskenatoki Historikoak.

ZERBITZUEN KOKAPENA

## Museoa, Bisitariendako gunea, erakusketa aretoa eta kafetegi tematikoa

Errege Mintegiko museoa eta bisitariendako gunea eraikin berean kokatzea proposatzen du txostenak. Gaur egun UNED dagoen tokian. Sarrera nagusia, oraingo UNEDeko atetik. Bisitariendako gunea (eta erakusketa areto bat) gaur egun UNEDen harrera dagoen tokian eta Museoa eskailerak igota. Ikastolarako sarrera nagusian, ostera, kafetegia (tematikoa izan daitekeena). Hortaz, Aranzadi ikastolak patiotik eta Irala kaletik izango luke sarrera. Horren guztiaren sarreran, *hall* bat (gaur egun bezala) eta *hall* horretatik, elizarako igarobidea (UNEDeko liburu-denda zegoen tokitik). Museoak hartuko lituzke UNEDeko lehen, bigarren eta hirugarren solairuak, eta teilatupeak. Hori guztia egin ahal izateko, Errege Mintegiaren fatxada nagusian, dei-efektua indartzea proposatzen du txostenak eta, era berean, gutxienez, Barrenkalea eta San Martin plaza oinezko bihurtzea.


ta Zientziaren Museoa GOIENKARIA



Tursimo Bulegoa ere Errege Mintegian kokatuko litzateke. Gaur egun udaletxeko sarreran dago. GOIENKARIA


Sarrera nagusitik sartuko da ekipamenduetara. GOIENKARIA


Udal liburutegiak Munibe aldera emango du. GOIENKARIA


Egino-Mailea etxe manierista, herriko arkitektura ederraren erakusle. GOIENKARIA



Kafetegia aurreikusten dute Aranzadiko sarreran. GOIENKARIA

Horrekin guztiarekin, gune turistiko-kultural nagusia San Martin plaza eta haren ingurua –hirigunearen bihotzean– izan behar direla dio txostenak, eta muina, Errege Mintegia. Era berean, ingurune horretan dagoen altxor arkitektoniko eta artistikoari gaur egungoa baino etekin handiagoa ateratzeko moduak ere planteatzen ditu planak (bisita gidatu tematikoak, seinaleztatze eta plaka sistema egokiak...).

**PLANAREN KUDEAKETA**

Plangintzaren kudeaketa ereduaren kasuan, txostenak dio argi izan behar dela baliabide kulturalen dinamizaziorako ekimen moderno eta bideragarri batek arrakasta izateko erakunde eta gizarte mailako adostasun eta babesa behar duela. Testuinguru horretan, eta herri mailako adostasuna aintzat hartuta, Bergarako Ondare eta Turismo Mahaia osatzea planteatzen du. Izaera juridikorik ez luke izango,baina bai erabakitzeko ahalmena. Mahai horretan batuko lirateke talde teknikoaren laguntzaz eta koordinazioaz, udal ordezkariak, erakunde inplikatuak, enpresetako ordezkariak eta ordezkari zibilak.

**FASEKA GAUZATUKO DUTE**

Proiektua gauzatzeko hiru fase aurreikusi dituzte, eta fase bakoitzari bi urte inguru dagozkio. Hala eta guztiz ere, faseok aldaketak izan ditzakete, Seminarioa/Arrizuriaga trukeak baldintzatuta daude-eta, neurri baten.

Lehen fasean (2010-2011) herriko ondarearen garapen turistikorako egitura operatiboaren oinarriak ezarri beharko liratekeela uste dute: Ondare eta Turismo Mahaia eta zerbitzu teknikoa; irudia eta seinaleztapen plangintza eta lehen ezarpenak; eta ekipamendu berriendako proiektu museografikoak. Prestaketa garaia da, non planifikazioak, programazioak eta finantzazio iturriak bilatzeak pisu handia izango duten.

Bigarren fasean (2012-2013), herriko eskaintza turistiko-kulturalaren antolakuntzaren oinarriak ezartzeko ahalegin berezia planteatzen dute. Aldi horretan espazio turistikoa itxuratuko dute; hala, turismo bulegoa irudi turistiko berriaren arabera atonduko dute, ondare eta turismo seinaleztapena guztiz ezarri eta sustapena eta zabalpena landu. Errege Mintegiko ekipamenduen egokitzapen museografikorako proiektuak aztertzeko garaia ere izango da eta finantzazio eta eskuhartze faseak erabakitzekoa.

Hirugarren fasea (2014-2015), herriko eskaintza turistiko-kulturala sendotzeko fasea izango da, ekipamenduak sortuz eta turismo eta hezkuntza ekintzak programatuz, hau da, turismo eta kultura produktuak gauzatuko litzateke.

Plangintza osoa gauzatzeko sei milioi euro inguruko inbertsioa egin beharko litzatekeela aurreikusten du Stoako txostenak.

BESTE ZERBITZU BATZUK

## Aretoa eta Udal liburutegia

Txostenak proposatzen du Udal liburutegia (mediateka bihurtuta), eta erabilera askotako aretoa ere Errege Seminarioan kokatzea. Aretoa, gaur egungo elizan, 250 edo 300 lagunendako, eta liburutegia azpiko solairuan. UNEDen liburutegia eta biltegia, eta ikastolako jangela hartuko lituzke, besteak beste, eta Munibe plazatik izango lituzke sarrera eta irteera nagusiak Udal liburutegiak.

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04
• Proiektuak
• Koltxoiak
• Horma-armairuak
• Altzariak neurrira
• Ateak
• Eskailerak
• Leihoak
• Tarimak
• Egur lanak orokorrean





SIRIMIRI
JATETXEA

ABUZTUAN
EGUNERO ZABALIK
Barrenkale, 3
BERGARA
943 76 59 19

**Luis Arellano** > Argazkilaria

# "Argazkilari bakoitzak begirada berezia eta bakarra du, eta hori sendotzen ahaleginduko gara"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Ilunpetan argazki taldeak ikastaro berezia egingo du urrian eta azaroan, Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Irakaslea Luis Arellano argazkilaria izango da. 16 orduko ikastaroan landuko duenaren gainean egin dugu berba harekin.**



Luis Arellano, Ugandan argazkia egiten. LUIS ARELLANO

**Argazkien estetikari buruzko ikastaroa egingo duzu Oñatin. Zer landuko duzu?**

Argazkien estetikari eta estiloari buruzko kontzeptuak aztertu eta landuko ditugu. Teknikak ondo ulertzea ezinbestekoa da argazkilariaren sormen prozesua ona izan dadin. Estetika eta estiloa ondo menderatzea funtsezkoa da kalitatezko erretratuak egiteko.

**Ikastaroan teoria eta praktika landuko dituzue.**

Hala da. Ikastaroa lau saiotan banatu dut. Bakoitzean argazkilaritzari buruzko atal batzuk landuko ditugu: zer diren estiloa eta estetika, argazkigintzan egon diren joera ezberdinak, zer den argazki on bat... Teorian ikasitakoa praktikara eroaten saiatuko gara.

Azkeneko egunean, adibidez, ikasleek egindako argazkiak landuko ditugu. Norberak dituen ezaugarriak aztertuko ditugu. Nire asmoa da ikasle bakoitzari bere estilo propioa topatzen laguntzea. Azken finean, argazkilari bakoitzak begirada berezia eta bakarra dauka. Nork bere ikuspuntua du argazkiak egiteko, eta guztiak dira baliozkoak. Ikuspuntu hori sendotzen ahaleginduko gara.

**Argazki on bat identifikatzen ere erakutsiko diezu. Noiz dakigu argazki bat ona den?**

Erretratu bat esku artean dugunean bi balorazio egin ditzakegu: subjektiboa eta objektiboa. Balorazio subjektiboarekin esan dezakegu argazkia gustuko dugun edo ez. Alegia, polita den edo ez.

**"Argazkilari bakoitzak begirada berezia eta bakarra dauka erretratuak egiteko"**

**"Enkoadraketa, konposaketa, kolorea, argia... dira argazki on baten ezaugarriak"**

Baina, balorazio objektiboa egiten dugunean, argazki ona den esateko kontzeptu zehatz batzuk hartu behar ditugu kontuan; besteak beste, enkoadraketa, konposaketa, kolorea, argia, formak eta egitura begiratu behar ditugu. Horiek onak badira, argazkia ona dela esan dezakegu.

Kontzeptu horiek ondo menderatzeko praktikatu egin behar da. Argazki txar asko egin behar ditugu, on bakar batzuk egiteko. Argazkilaritzan ere pazientzia ezinbestekoa da, emaitza onak lortu ahal izateko.

**Nortzuk eman dezakete izena ikastaroan?**

Argazkilaritzan esperientzia duenak, noizbait lehiaketaren bat irabazi duenak eta inoiz argazkirik egin ez duenak. Edonork parte har dezake. Ikasteko gogoa da inportanteena. Landuko ditugun kontzeptuak menderatzea ezinbestekoa da guztiendako, baina bat edo beste izan.

Gehienez, 15 lagunendako tokia dugu taldean. Hortaz, interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena *ilunpetan@gmail.com* helbidean.

**Ikastaroa lau zapatutan emango duzu.**

Bai, hala da. Udazkenean egingo dugu. Hain justu ere, urriaren 23an eta 30ean, eta azaroaren 6an eta 13an. Egunero lau ordu egingo ditugu, 10:00etatik 14:00etara. Guztira, 16 ordu.

**ZERBITZUAK** > UDAKO ORDUTEGIA

# Udal zerbitzuak zabalik egongo dira abuztuan ordutegi murritzagoarekin

Nagusien liburutegia goizez bakarrik zabalduko dute abuztuan eta Gazte Informazio Puntua, arratsaldez

**M.B.** > OÑATI

Udal zerbitzuak zabalik egongo dira abuztuan, baina ordutegi murritzagoarekin. Hori horrela, kiroldegia, udal bulegoak, liburutegiaeta gaztelekua zabalik egongo dira.

Nagusien liburutegia zabalik egongo da abuztuan, 09:30etik 13:30era, eta haur liburutegia itxita egongo da. Dena den, haur liburutegian jasotako materiala nagusien liburutegian utz daiteke.

Bestalde, hilaren 31ra arte biak ala biak zabalik egongo dira: nagusien liburutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta haur liburutegia 10:00etatik 13:00etara.

Udal bulegoetan tramiteren bat egin gura dutenak astelehenetik egubakoitzera joan daitezke hara, 09:00etatik 14:00etara.

**KIROLDEGIA ETA GAZTELEKUA**

Zubikoan ere ordutegi berezia izango dute abuztuan. Martitzenetik domekara arte 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute. Dena den, uztail bukaera arte beste ordutegi bat izango dute: astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era; eta, zapatuetan, domekatan eta jaiegunetan 10:00etatik 20:00etara.

Gaztelekua ere zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, zapatuetan, domekatan eta jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara. Gazte Informazio Puntua 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute martitzenetik barikura.

**UDALA** > DENDARIENDAKO LAGUNTZAK

# 99 negoziok eskatu dute laguntza abuztuan zabaltzeko

Abuztu osoan edo bi astean zabalduko dute

**M.B.** > OÑATI

Zerbitzu arloko 99 negoziok eskatu dute Udalaren laguntza abuztuan zabaltzearren, iaz baino 14 gutxiagok (2009an 113k eskatu zuten laguntza).

Horietatik 50ek abuztu osoan zabalduko dute, goizez eta arratsaldez; 15ek bi astean zabalduko dute, goizez eta arratsaldez; eta 34k abuztu osoan, goizez bakarrik.

Lehen taldekoek 625na euro jasoko dituzte, bigarren taldekoek 350na euro eta hirugarrenekoek 300 euro bakoitzak.

**NEGOZIO BATZUK ITXITA**

Herrian hainbat negozio itxi dira eta horrek izan du zerikusia, aurten eskaera gutxiago jaso da-eta. Iaz, laguntza eskatu zuten sei negozio itxi egin dituzte. Bestalde, abuztuan zabalik egongo diren taberna batzuek ez dute laguntzarik eskatu. "Ez dakigu arrazoia", diote Enplegu Zerbitzutik.



JOSU GARAI

## Josu Garai Zumaiako lehiaketan irabazle

Josu Garai oñatiarrak Zumaiako Udalak antolatzen duen zuri-beltzezko 22. argazki lehiaketa irabazi du *Etxera* izeneko argazkiarekin. "Cadizko herri txiki baten egindako argazkia da. Gauez egin nuen", esan digu Garaik. Guztira, 120 erretratu aurkeztu zituzten lehiaketara. Xabi Mata eta Lander Rezola legazpiarrak ere saritu zituzten.

**ESKORIATZA** > ZINEMA

# Santa Anan zeuden filmak emateko makina zaharrak jaso dituzte Ibarraundi museoan

Herritarrek ikusteko jarriko dituzte eta sasoi baten zinemaren ardura izan zutenak gertu daude makinak martxan jartzeko



Sasoi baten zinemaren ardura izan zuen Pedro Altuna makinei begira, egubakoitz goizean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Santa Ana komentuko aretoa zinema izan zen sasoi baten eta filmak botatzeko makinak bertan zeuden oraindik. Erabilera askotako aretoa egiteko lanak direla-eta, makina horiek Ibarraundi museora eroan dituzte. Pieza guztiak garbitu eta gero muntatu egin behar dira, baina asmoa da herritarrek ikusteko jartzea.

**FILMAK BOTATZEKO BI MAKINA**

Sasoi baten filmak botatzen ibilitako Pedro Altuna eskoriatzarra izan zen Ibarraundin makinak ikusten egubakoitz goizean. Makinok martxan jartzeko ahalegina egiteko gertu azaldu zen, nahiz eta argi utzi ez dela izango batere samurra: "Martxan jarri bai, hori egiteko motorra martxan jartzea nahikoa delako; filmak botatzea izango da zaila". Horretarako egin beharreko lehenengo lana argindar kableak aldatzea izango da.

Bi makina dira jasotakoak: zaharrenak 70 bat urte ditu eta OSSA-4 markakoa da, eta bigarrena, 45 urtekoa, aurrekoaren kopia da –hobekuntzak eginda–.

Filmak ez dituzte lanpara bidez botatzen, erreta baizik, "soldatzerakoan sortzen den antzera", azaldu du Altunak, eta fokua erregulatu beharra izaten zuten distantzia kontuan hartuta. Soinuarendako, gainera, beste aparailu bat dauka.

**BAKEROEN FILMEK ARRAKASTA**

Parrokiako zinema izan zen hasieran Santa Anan zegoena eta parrokoa zen bertako arduraduna. Anton Beloki eta Pedro Altuna eskoriatzarrek, baina, zinemaren ardura euren eskuetan uzteko konbentzitu zuten Agustin Etxebarria parrokoa eta halaxe hasi ziren filmak botatzen: "Baina lehenengo hiru hilabeteko ikastaroa egin behar izan genuen Donostiako ingeniaritza eskolan baimena eskuratzeko", azaldu zuen Altunak. Belokiren emaztea, gainera, sarrerak banatzen egoten zen.

Altunak gogoan du zapatuetan saio bakarra egiten zutela, domeketan hiru eta astelehenean beste bat: "Domeketan, gainera, guardia zibila etortzen zitzaigun salmentak ikustera eta %3 eman beharra geneukan. Saltzen ez ziren sarrerak, ostera, Ogasun Sailaren eskuetan geratzen ziren".

Santa Anako aretoak 176 jarleku zituen eta gogoan du batzuetan bete egiten zela: "*Ben Hur* ematerakoan, esaterako, eta bakeroen edozein filmekin, baita txarrekin ere". Eta parrokoaren zentsura izaten zutela dio, "muxuak agertzen zirenean mozteko agintzen zigun".

25 bat urte egin zituzten Altunak eta Belokik filmak botatzen, eta gero Udalak hartu zuen ardura hori.

**ARETXABALETA**

## Gaztelekua kudeatzeko deia egin du Udalak

Bi urterako kontratua izango da, lau urte arte luzatu ahal izango dena

**M.A.** > ARETXABALETA

Gaztelekuaren jarduera kudeatzeko deialdia egin du astean Udalak. Interesatuek Udalaren webgunean daukate baldintzen berri –*www.aretxabaleta.com*– eta 15 eguneko epea eskaintzak aurkezteko udaletxean.

**50.000 EURO URTEKO**

Aretxabaletako nerabeendako zerbitzua eman beharko dute gaztelekuan horren ardura hartzen dutenek. Zerbitzu hori bi urterako izango da eta bi aldeak konforme egonez gero, kontratua urtez urte luzatu ahal izango da, lau urte arte. Bi aldeen arteko kontratu hori irailaren 23an indarrean sartzea dauka aurreikusita Udalak, eragozpenik ez bada sortzen behintzat. Prezioa 50.000 euro izango da urteko. Horren barruan sartuko dira zerbitzua eskaintzearen ondorioz sortzen diren gastu guztiak, baita joan-etorriei dagozkienak eta bulego materialaren gastuak ere.

**oharrak**

ESKORIATZA

**> Ausarta taldeak egindako zozketaren zenbaki saridunak**

Ausarta antzerki taldeak antolatutako zozketak badu irabazlea. Zenbaki sariduna: 1.265. Urdaiazpikoa, gazta eta ardoa dituen saskia jasoko du. Zenbaki horren jabea agertzen ez bada, ordezko zenbakia duenarendako izango da. Hona: 1.059. Horren gaineko argibide gehiago jaso gura duenak 676 32 57 10 zenbakira dei egin dezala.

ARETXABALETA

**> Osoko bilkura gaur**

Gaur, hilak 26, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak (18:00). Eztabaidatuko dituzten gaien artean daude Irurikoa baserriko espedientea eta Udal langileen soldata jaitsiera.

GIMNASIOA

**> Abuztuko bi astetan itxita egongo da Zainduz**

Abuztuko lehen eta azken asteetan (2tik 8ra eta 23tik 29ra) zabalik egongo da goizez (09:00-13:30). Eta abuztuaren 9tik 22ra, itxita.

KZGUNEA

**> Itxita dago abuztu guztian**

Markole kaleko KZguneak egubakoitzean itxiko ditu ateak irailaren 1era arte. Iraileko ordutegia: 09:00-13:00.

PINTXO-POTEOA

**> Eguaztenean egingo dute opor aurreko azkena**

Tabernari askok oporrak hartuko dituzte abuztuan eta ez da egongo pintxo poteorik irailera arte.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



M.A.

## Jai giroan esan diete agur udalekuei neska-mutikoek

Egubakoitzean egindako azken jaiko ekitaldiarekin esan zieten agur udalekuei Aretxabaletako neska-mutikoek. Sekula baino gehiago elkartu dira aurten, 250 inguru, eta orokorrean giro ezin hobea izan dutela jakinarazi dute Gazteria Zerbitzuko arduradunek; halaxe agertu zuten ume eta gazteek azken jaiko dantza saioetan.

Irteerak egin dituzte, nagusienak Debara eta guztiak elkarrekin Urkiolara. Horiez gain, Mendiolan kanpin dendekin eta Landan ere izan dira nagusienak eta Galartzan gaua pasatzen ere bai, gainerakoak. "Ez da izan arazorik, ez behintzat potolorik, eta umeak oso gustura ibili dira", adierazi dute arduradunek. Hala ere, gurasoen artean inkesta pasatu dute euren iritzia jakin eta datorren urtera begira hobekuntzak egiteko asmoarekin. Inkesta horiek egubakoitzean jaso zituzten eta ondorengo egunotan aztertuko dituzte.



Foru diputatu Edurne Egaña eta Elgetako alkate Oxel Erostarbe lankidetza hitzarmena sinatzen. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**ELGETA** > PROIEKTUAK

# Irailean hainbat proiektu abiaraziko ditu Udalak

Ibilgailuen arautegi berria martxan egongo da, Kudeatuz programari ekingo dio eta Mundumira prestatzen hasteko lehen bilerak deituko ditu

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Abuztuko etenaldia indarrak hartzeko ondo aprobetxatu beharko dugu; izan ere, kargatuta dator iraila. Udalak lankidetza hitzarmena sinatu berri du Foru Aldundiarekin, eta Kudeatuz programan sartu da. Udalaren eta udal zerbitzuen gainean elgetarrek duten iritzia jasoko dute programa horren bitartez, eta, horrez gain, prozesu parte-hartzaile berri bat ipiniko dute martxan. Gaia izango da Elgeta 2020. Oxel Erostarbe alkatearen esanetan: "Irailean herritarrek parte hartzeko ekimen bat jarriko dugu martxan"; eta galdera izango da *Zelakoa gura duzu Elgeta 2020an?*

**MUNDUMIRA ELGETAN**

Aurreko astean hartu zuen erabakia Mankomunitateko gobernu batzordeak: Elgetan egingo da datorren urtean Mundumira jaialdia, maiatzaren 21ean eta 22an, hain zuzen ere. Erostarbek esan du erronka handia izango dela, eta aurreratu du irailean hasiko direla hura antolatzen. Herritarrei uda ostean egingo diete dei haren antolaketa lanetan laguntzeko.

**IBILGAILUEN ARAUTEGIA**

Eta uztaileko osoko bilkuran jakin genuen Udalak abuztuan ipiniko duela martxan ibilgailuendako arautegi berria. Udal arduradunek uste dute oporren hilabetea aproposa izan daitekeela lehenengo probak egiteko, besteak beste piboteen eta mandoen erabilerak sor ditzakeen arazoak antzemateko. Irailetik aurrera, baina, ez da aitzakiarik egongo eta arautegia indarrean egongo da. Herritarrak informatzeko esku-liburua banatuko dutela jakinarazi dute Udaletik.

Zaborren batzordea da Udalak irailerako utzi duen beste gai nagusietako bat. Zaborren kudeaketaren gaineko hausnarketa egin behar da, eta erabaki bat hartu behar da atez atekoaren inguruan.

**ANTZUOLA** > HITZARMENA

## Herritarren balioak definintzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Diputazioak

Diputazioak abian jartzen duen hirugarren aldia da; Antzuolaz gain, beste bederatzi herrik ere sinatu dute hitzarmena

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Azkeneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Kudeatuz programan partea hartzea; eta, joan den eguenean, Diputazioak eta Udalak hitzarmen hori sinatu zuten. Edurne Egaña diputatua izan zen sinatze ekitaldian.

**HIRUGARREN ALDIA DA**

Diputazioak Kudeatuz programa martxan jartzen duen hirugarren aldia da; oraingoan, Antzuolako herriaz gainera, beste bederatzi udalerrik hartuko dute parte programan: Beasain, Elgeta, Mutriku, Orio, Ormaiztegi, Urnieta, Urretxu, Zestoa eta Zumaiak.

**HERRITARREN BALIOAK ADOSTU**

Udalaren asmoa da programa horren bitartez herritarren balioak definitu eta adostea. Hala, parte-hartze prozesuaren bitartez *Antzuolako etorkizuneko armarria/ sinbolo/ irudiaren bidean, gaur egungo antzuolarron balioak definitu eta adostea* landuko dute. Bestalde, Aldundiak inkestak egingo ditu herritarren artean telefono bidez. Galdera izango da: *Antzuolan zer dago faltan eta zer sobran?* Irailean hasiko dute programa.

**ARAMAIO** > JENDARTEA

# Errepidearen auzia dela eta, protesta bihar Gasteizen

Diputazioaren aurrean elkarretaratzea egingo dute goizean; Aramaioko kiroldegian batuko dira Gasteizera joateko, 09:30ean

**E.M.** > ARAMAIO

Aramaioarren pazientzia bukatzen hasia da eta, A-2620 errepidearen auziaren aurrean Arabako Diputazioak erakutsitako "utzikeria" salatuko dute bihar, martitzena, Gasteizen. Udalak dei egin die herritarrei biharko protesta ekitaldian parte hartzeko. Kiroldegiaren ondoan elkartuko dira, 09:30ean, autoak antolatzeko, eta 10:30ean Arabako Aldundiko jauregi aurrean burutuko dute protesta. Lur jausi bategatik Aramaio eta Arrasate arteko errepidea itxi zutela sei hilabete betetzear dira.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Zuiako Koadrilak argazki lehiaketa deitu du. Partaideek Zuiako udaletan ateratako argazkiak aurkeztu ahal dituzte. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa. Aramaioko irudi onenarendako ere saria izango da: 75 euro eta trofeoa. Urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. *Zuiako Koadrilari begirada bat* izenburupean, lehiaketaren 8. ekitaldia da aurtengoa. Argibideak 945 43 01 67 zenbakian.




A-2620 errepidea joan den urtarrilaren 31 ezkero itxita dago. E.M.

**LEINTZ GATZAGA** > AISIALDIA

## Udalekurik ez baina ekitaldi asko egin ditu Gurelek

Egun bakarreko ekitaldiak izan dira: gaua pasatu Dorletan eta egun pasa Zumaian

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Aurtengo uztailerako ez du udalekurik antolatu Gurel guraso elkarteak, azken urteetan egin duen legez. Horren arrazoia ekonomikoa da, eta egungo krisi egoeraren aurrean beste era batera antolatzea aisialdia erabaki dute, egun bakarreko ekintzak eginda. Hala, izan dute zer egin eta zerekin ondo pasatu Gatzagako ume eta gaztetxoek.

**GAUPASA DORLETAN**

"Udalekurik ez, baina uztailari opor antza emateko hainbat ekintza egin ditugu", diote Gureleko arduradunek. Uztailaren 17an, esaterako, ume zein gurasoak Dorletako santutegi ingurura joan ziren kanpin dendetan lo egitera. Bertan afaldu zuten eta gaua pasatu ostean Labideara jo zuten gosaltzera.

Joan den eguazten ilunkaran, ostera, Toki Eder elkartean elkartu ziren guraso eta ume horiek eta pizzak egin zituzten bertako sukaldean. Ondoren afari pasa ederra antolatu zuten norberak egindako pizza janda.

**ZAPATUAN ZUMAIA ALDEAN**

Eta zapatuan, hilak 24, egun pasa egin zuten kostaldean. Zumaiara autobusean joan eta oinez ibilalditxoa egitea erabaki zuten lehenengo. Nagusienak Deban jaitsi ziren eta txikienak Zumaian bertan. Hala, Deba-Zumaia ibilbidea egin zuten guztiek, baina adinari egokitutako tartea. Bukatutakoan Elorrixa auzoan elkartu ziren bazkaltzeko. Arratsaldea, ostera, hondartza inguruan pasatu zuten jolasean.

Irailean jarraituko du lanean Gurelek, ikasturte berria antolatzen hasteko.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Ohorezko Erregional mailakoak denboraldia prestatzen **> 22-23**



**> AUTO LASTERKETAK**
Aramaioko IX. Rallysprinta irailaren 11rako antolatu du Azpikoracing-ek **> 24**



**> PILOTA**
Oñatiko pilota txapelketako finalak egubakoitzean **> 25**




Iban Velasco, erlojuaren kontrako etapan. EUSKALTEL EUSKADI




Arrasatearra 12. etapako helmugara heltzen. EUSKALTEL EUSKADI




Euskaltel Euskadi taldeko ordezkariak, tartean Velasco, Tourrean. EUSKALTEL EUSKADI

# "Ez nago gustura: bukatu baino zerbait gehiago egin gura nuen"

**SAILKAPENA**
Iban Velascok 62. tokian bukatu zuen Frantziako Tourra

**GOGORRA**
Arrasatearrarendako 16.etapa izan zen gogorrena

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Euskaltel Euskadi taldeko Iban Velasco arrasatearrak 62. tokian bukatu zuen atzo Frantziako Tourra. Alberto Contador irabazleak baino 1.49.57 gehiago egin zuen.

Parisko etapa bukatuta harekin egin genuen berba eta oso nekatuta zegoela esan zigun: "21 etapen ondoren nekatuta nago. Alaba jaioberria ezagutzeko etxera joateko gogoa daukat".

Tourraren lehenengo astean hiru eroriko izan zituen, eta oraindik gorputza minduta duela esan zigun: "Hobeto nago. Zauriak sendatu zaizkit, eta azken etapatan hobeto ibili naiz. Dena den, azkenerako indarrak bukatu egin zaizkit". Indar horietako asko 16. etapan galdu zituen. Velascorendako Tourreko etapa gogorrena. "Peyresourde, Tourmalet, Aspin eta Aubisque egun berean igotzea izugarria izan zen. Minduta eta gogortuta bukatu nuen bizikleta gainean. Nahi eta ezin ibili nintzen", esan digu.

**ESANAK**

"Peyresourde, Tourmalet, Aspin eta Aubisuqe egun berean igotzea oso gogorra izan zen. Tourreko etapa gogorrena"

"Podiumera igotzea saria zen Euskaltelendako, baina erlojupekoan Menchov izan zen hobea"

**Iban Velasco** > Txirrindularia

**EUSKALTEL PODIUM BARIK**

Lehen aldiz parte hartu du txirrindulari arrasatearrak Tourrean, eta bukatu egin du, baina ez dago erabat gustura. "Bukatu dut eta pozik nago. Baina ez da parte-hartze borobila izan. Tourra bukatu baino zerbait gehiago egin gura nuen", dio.

Euskaltel Euskadi podiumera igo barik geratu da, zapatuko erlojupekoan Samuel Sanchezek hirugarren tokia galdu zuen-eta. Taldeak egindako lanarekin gustura dago Velasco. "Guztiok egin dugu lan sendo. Podiumera igotzea sari potoloa zen guretzat. Baina, erlojupekoan Menchov izan zen hobea".



Bergarako jokalariak, egubakoitzean, Ipintza futbol zelaian egindako entrenamendua hasi aurretik. JULIO CALLEJA

**FUTBOLA** > DENBORALDI-AURREA

# Ohorezko erregionala: entrenatzaile berriak eta antzerako helburuak

## Aloña Mendi

**JOKALARIEN ZERRENDA**

**Atezainak**
- > Oier Zabaleta
- > Mikel Aginagalde

**Atzelariak**
- > Mikel Karpintero
- > Mikel Urkia
- > Endika Ruiz
- > Ander Mendoza
- > Yagoba Martin
- > Iker Olalde
- > Iker Agirre

**Erdilariak**
- > Gorka Bernal
- > Iñigo Zubia
- > Aritz Garmendia
- > Jon Igartua
- > Xabi Agirre
- > Andoitz Biain
- > Mikel Palacios
- > Unai Arregi
- > Josu Juaristi

**Aurrelariak**
- > Roberto Idigoras
- > Julen Palacios
- > Iñigo Arregi
- > Unai Moiua
- > Alberto Millas

**BAJAK**
- > Julen Barrena (bigarren entre.)
- > Mikel Sanchez
- > Iker Aramendi
- > Eldin Zivogeviv (Gasteizera) .

**ALTAK**
- > Mikel Urkia (gazte mailatik)
- > Julen Palacios (gazte mailatik)
- > Iker Agirre (Ordiziatik, Eibarrek utzita)
- > Ander Mendoza (Idiazabaldik, Eibarrek utzita)

**ZALANTZAK**
- > Jon Astigarraga, Iñigo Idigoras eta Iker Maiztegi ikastera doaz kanpora Gabonak arte. Orduan izan dezakete aukera taldean sartzeko.

## Aretxabaleta

**JOKALARIEN ZERRENDA**

**Atezainak**
- > Iker Agirregabiria
- > Gaizka Eriz

**Atzelariak**
- > Raul Sanchez
- > Andoni Amutxastegi
- > Gorka Iturbe
- > Kerman Azkarraga
- > Mikel Ibabe
- > Alain Gomez

**Erdilariak**
- > Igor Oinguren
- > Gartzi Gorosabel
- > Iker Orueta
- > Gillen Mar
- > Iñaki Uribetxeberria
- > Haritz Igartua
- > Akaitz Garai
- > Aitor Perez
- > Jonan Arrizabalaga

**Aurrelariak**
- > Aitor Etxebarria
- > Jokin Badillo
- > Oinatz Agirre

**BAJAK**
- > Ruben Leonardo
- > Gotzon Urtzelai
- > Borja De Luis
- > Aitor Azpiazu
- > Aitor Irastortza
- > Unai Biana
- > Iban Vila
- > Eden Sologaistoa
- > Imanol Rodriguez
- > Julen Eraña

**ALTAK**
- > Mikel Ibabe (Aloñatik)
- > Iker Agirregabiria, Igor Oianguren, Gartzi Gorosabel, Gilen Mar, Jonan Arrizabalaga eta Aitor Etxebarria (gazte mailatik)

## Bergara

**JOKALARIEN ZERRENDA**

**Atezainak**
- > Unai Rezola
- > Igor Rezola
- > Iñigo Perez

**Atzelariak**
- > Andoni Nafarrete
- > Mikel Oregi
- > Iker Arazkonaga
- > Aitor Elorriaga
- > Ion Garitano
- > Asier Longares
- > Xabier Urrutia
- > Andoni Arruti
- > Markel Lazpiur

**Erdilariak**
- > Unai Agirre
- > Julen Iñurrieta
- > Iñaki Igartua
- > Eloy Crespo
- > Ander Retolatza
- > Markel Ilzarbe
- > Aitor Oregi
- > Jokin Baltzategi
- > Aitor Aspiazu

**Aurrelariak**
- > Imanol Cabanillas
- > Mattin Ibañez
- > Iñigo Macho
- > Beñat Katalan
- > Ismael Navas

**BAJAK**
- > Mikel Otero (bigarren entrena.)
- > Ion Altzola
- > Oier Loiola
- > Josu Agirrezabal
- > Ion Urteaga
- > Iñaki Mujika
- > Jokin Belategi

**ALTAK**
- > Aitor Aspizu (UDAtik)
- > Igor Rezola, Asier Longares, Xabier Urrutia eta Ander Retolatza (lehen erregionaletik)
- > Iñigo Perez, Andoni Arruti, Iñaki Igartua, Aitor Oregi, Iñigo Macho eta Ismael Navas (gazte mailatik)

## Mondra

**JOKALARIEN ZERRENDA**

**Atezainak**
- > Ander Ruiz de Azua
- > Mikel Gartzia

**Atzelariak**
- > Jon Loiti
- > Iker Laspiur
- > Kepa Merkader
- > Illart Etxebarria
- > Jon Zabaleta
- > Andres Castillejo

**Erdilariak**
- > Enrike Tena
- > Oier Arregi

**Aurrelariak**
- > Jon Muruamendiaratz
- > Xabi Pavon
- > Lander Andres
- > Julen Heriz
- > Iker Lopez

**BAJAK**
- > Ander Bereziartua (futbola utzi du)
- > Jon Azpeitia (futbola utzi du)
- > Jon Azpeitia (futbola utzi du)
- > Jon Azpeitia (futbola utzi du)

**DENBORALDI-AURREA EGINGO DUTE**
- > Aitor Iregi
- > Iban Roa
- > Jokin Pavo
- > Markel Crespo
- > Jon Ander Ormaetxea
- > Garikoitz Nuñez
- > Julen Losada
- > Aitor Chaves
- > Imanol

Liga hasi aurretik erabakiko dute denboraldi-aurrea egingo dutenetako zein jokalariri egin fitxak.

### Bergarak, Mondrak eta Aretxabaletak entrenatzaile berria izango dute

### Ohorezko Erregional mailako denboraldia irailaren 12-13ko aste bukaeran hasiko dute

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Irailaren 12-13ko aste bukaeran hasiko da Ohorezko Erregional mailako denboraldia. 18 talde lehiatuko dira, horietatik lau debagoiendarrak: Aloña, Mondra, Bergara eta UDA (aretxabaletarrak Hirugarren maila galdu zuten iaz).

Bergara eta Aloña lanean hasi dira dagoeneko. Uztail bukaeran hasi zituzten entrenamenduak, eta dagoeneko bota dituzte lehen izerdiak. Mondra eta UDA abuztuan hasiko dira –arrasatearrak abuztuaren 19an eta aretxabaletarrak abuztuaren 9an–.

Lau taldeek denboraldi-aurreko partiduak jokatuko dituzte abuztu erdialdetik aurrera, eta Bergarako eta Arrasateko futbol txapelketetan elkartuko dira. Bergarako txapelketa jokatuko dute abuztuaren 26an, 27an eta 28an. Finalerdietako bat Bergarak eta Ermuak jokatuko dute, eta bestea Mondrak eta UDAk. Finala jokatuko dute abuztuaren 28an.

Bestalde, Arrasate Hiria Futbol txapelketa Debagoieneko lau taldeek jokatuko dute, iraileko lehen aste bukaeran.


Aloñako jokalariek egubakoitzean entrenatu zuten Julen Barrenaren aginduetara. JULIO CALLEJA

Ikusleek aukera paregabe izango dute lau taldeen fitxaketa eta jokalari berriak zeintzuk diren ikusi, eta laurek duten itxura ezagutzeko.

**LANERAKO "GOGOTSU"**
Jokalarien artean aurpegi berriak egon arren, entrenatzaileen artean ere aldaketak daude. Bergarak, UDAk eta Mondrak entrenatzaile berriak dituzte: Oskar Maiztegi, Rafa Barrutia eta Iban Rodriguez, hurrenez hurren. Hirurak datoz Gazte mailatik. Aloñako entrenatzailea Pablo Diez da.

Jokalariak bezala, entrenatzaile berriak ere gogotsu daude. Bergarako entrenatzailea lanerako gertu dago. "Ohorezko Erregional maila ezagutzen dut jokalari moduan. Dena den, gogotsu nago, ez urduri. Zorrotza izango naiz jokalariekin eta neure buruarekin", esan digu.

Mondrako entrenatzaile Iban Rodriguezek Aretxabaletako Ohorezko mailako gazteak entrenatu ditu azken bi urteotan. Rodriguezek ere ezagutzen du Ohorezko Erregional maila jokalari moduan: hiru urtetan jokatu zuen. Mondraren erronka onartu zuen aurrerapausu moduan. "Urte oso onak bizi izan ditut gazte mailan, bereziki igoera lortu genuenekoa. Baina, iazko denboraldi hasieran erabaki nuen azkena izango zela maila horretan. Ohorezko Erregionalera salto egitea aurrerapausua da niretzat", dio Rodriguezek.

**"ILUSIOAREKIN"**
Eibarreko Ohorezko mailako gazteen taldeko entrenatzailea Gaizka Garitano izango zela jakin zuenean, UDAren proposamena onartzea erabaki zuen Rafa Barrutia durangarrak. "Ilusio handiarekin nator, gogotsu. Harrituta geratu naiz UDAk duen futbol egiturarekin. Eibarrek duenaren oso antzekoa da", esan digu.

Maila eta taldea ezagutzen dituena Aloñako entrenatzailea da. Urtarrilean heldu zen Oñatira eta lan ona egin zuen. "Iazkoa errepikatu, eta ahal badugu, hobetu egingo dugu", esan digu Pablo Diezek.

**Pablo Diez >**
Aloñako entrenatzailea

## "Egindako fitxaketekin talde orekatua osatu dugu"

**Ze helbururekin hasiko duzue denboraldia?**
Helburu nagusia da ahalik eta azkarren maila mantentzea eta lasai ibiltzea. Gero, denboraldiak esango digu zertarako gai garen.

**Taldea asko aldatu da iaztik?**
Nire ustez taldea ondo indartu da. Jokalari beterano batzuek taldea utzi dute, baina Gazte mailatik bi jokalari on igo ditugu, eta lau fitxaketa on egin ditugu. Horiek guztiek, taldearen maila igoaraziko dute.

**Zein da taldearen lerro sendoena?**
Talde orekatua dugula esango nuke. Dena den, egin dugun fitxaketekin atzeko lerroa asko sendotu dugula uste dut.

**Ze talde egongo dira goiko postuetan lehian?**
Ondarroako Aurrera eta Pasajes aurrean ibiliko dira. UDA ere ez nuke baztertuko. Ezustekoren bat egongo da; ea bada, gu garen.


GOIENKARIA

**Rafa Barrutia >**
UDAko entrenatzailea

## "Goiko postuetan egoteko ilusiorekin egingo dugu lan"

**Ze asmo duzue Ohorezko Erregional mailarako itzuleran?**
Ilusio handiarekin nator. Nire asmoa da goiko postuetan egotea. Jokalarien %80ak taldean jarraitzen du. Beraz, esperientzia duen taldea dugu.

**Taldea ondo indartu al da?**
Ez dut Gipuzkoako Ohorezko Erregional maila sakon ezagutzen, baina ondo indartu garela esango nuke.

**Zein da taldearen lerro sendoena?**
Ez nuke lerro bat besteen gainetik azpimarratuko. Oro har, esango nuke talde orekatua dugula.

**Hirugarren mailatik etorrita, faboritoak zarete goian ibiltzeko?**
Askorendako hautagaietako bat izango gara, baina tentu handiz ibili beharko gara. Nire faboritoak dira Ondarroako Aurrera, Pasajes, Real Union, eta Anaitasuna. Azken horiek maila estreinatuko dute, baina talde sendoa osatu dute.


JULIO CALLEJA

**Oskar Maiztegi >**
Bergarako entrenatzailea

## "Jokalari gazteek presentzia handia izango dute taldean"

**Sei jokalarik taldea utzi dute. Horien lekua Gazte mailakoekin beteko duzue.**
Bai, hala da. Gazte mailakoek presentzia izango dute taldean. Jokalari beteranoekin batera eurak izango dira protagonista.

**Horrenbeste aldaketekin, zein da zuen helburua?**
Denboraldi txukuna egin nahiko genuke. Baina, neurri handi batean, jokalari berriak taldera nola moldatzen diren, halako denboraldia egingo dugu.

**Maila mantentzearekin nahikoa duzue?**
Maila mantendu gura dugu, noski. Baina, helburu hori betetzen dugunean ezin gara erlaxatu, bestela denboraldia oso luzea egingo zaigu.

**Zeintzuk dira talde faboritoak ?**
Aurrera, Tolosa eta Aretxabaleta dira, teorian, goiko lekuetan ibiliko direnak.


JULIO CALLEJA

**Iban Rodriguez >**
Mondrako entrenatzailea

## "Urteko helburua zehaztu aurretik, taldea osatu beharko dugu"

**Zein da Mondraren helburua denboraldi berrirako?**
Egia esan, oraingoz ezin dugu helburu zehatzik finkatu, taldea osatu barik dugu-eta. Fitxa guztiak egiten ditugunean jakingo dugu ze maila duen taldeak eta zer egin dezakegun. Lerro batzuetan jokalari gutxi ditugu. Hori horrela, egun dugun asmo bakarra taldea osatzea da.

**Nahiko berandu zabiltzate.**
Uztail hasieran entrenamendu batzuk egin genituen, taldea ia lotuta uzteko asmoarekin. Baina, azken orduan bi jokalari kanpora doaz ikastera, eta beste batek zalantzak ditu. Guztiak zelai erdiko jokalariak dira. Eta, bai, berandu gabiltza, baina...

**Zeintzuk dira Ohorezko Erregional mailako talde faboritoak?**
Azken urteotan goian ibili direnak egongo dira aurreneko lekuetan: Tolosa, Pasajes, Aurrera... Ea bada, Debagoieneko talderen bat goiko postuetan ikusten dugun!


GOIENKARIA

**AUTO LASTERKETAK** > RALLYSPRINTA

# Berrikuntza barik, irailaren 11n jokatuko dute Aramaioko IX. Rallysprinta

Errepidea 14:30ean itxiko dute, eta ordu bete beranduago hasiko dute proba

Ibarran hasita, Etxaguenetik Gantzagara egingo dute helmugara heltzeko



Ikusleak Arriola auzora iritsi baino kilometro bat lehenago Citroen Saxoko pilotua animatzen, iazko proban. ARTXIBOA

**MIREIA BIKUÑA** > ARAMAIO

Irailaren 11n jokatuko dute Aramaioko IX. Rallysprinta. Hilabete eta erdi falta da, baina dagoeneko antolatzaileak hasi dira proba prestatzen. "Abuztua dago aurretik, eta ezer gutxi egin dezakegu. Hasi gara prestaketa lanekin", esan digu Azpikoracing antolatzaile taldeko kide Julen Agirrek.

Ez du aldaketarik izango iraileko probak, Aramaioko errepideetan lan dezente egiten dihardute arren. "Ez dugu uste arazorik izango dugunik. Lanean dihardute, baina ohiko ibilbidea egin ahalko dugula uste dugu", dio Agirrek. Hori horrela bada, 6,7 kilometroko ibilbidea egingo dute.

Irteera puntua Ibarran egongo da. Handik Etxaguengo bidegurutzeraino aldapa gora egingo dute. Ondoren, Gantzagarako bidea hartuta, azken kilometroak aldapa behera egingo dituzte gidari guztiek.

**PARTE-HARTZAILEAK**

Parte-hartzaile kopuruari dagokionez, daturik ez dute antolatzaileek. Izenemateak "azken orduan" egiten dituztela esan digute: "Oraingoz ez du inork izenik eman. Abuztu bukaeran edo irail hasieran emango dute izena gehienek". Iaz 60 gidarik eman zuten izena eta 2008an 68k. Tartean, etxeko gidariak (Inhar Amenabar eta Igor Orobengoa) eta kanpokoak (Vilariño anai-arrebak, Josetxo Zapiain Ruben gartzia eta Jose Labaka).

Iaz, Ander eta Angela Vilariño izan ziren azkarrenak Aramaion Subaru autoarekin, Jose Labaka eta Ruben Gartziaren aurretik.

**UZTAILETIK IRAILERA**

Azken bi urteotan –2008an eta 2009an– irailean egin dute Aramaioko Rallysprinta. Aurretik, baina, uztailean egiten zuten. Auzoetako jaiekin bat ez egiteko erabaki zuten data aldatzea. "Arazoak izaten genituen auzoetako jaiekin. Rallysprinta egiteko errepidea moztu beharra daukagu, eta jaietan ezinezkoa zen. Hori horrela, irailera atzeratzea erabaki genuen", esan digu Agirrek. Aldaketa onerako edo txarrerako izan den galdetzerakoan, zera esan digu: "Ez nuke esango hilabete aldaketak onerako edo txarrerako eragina izan duenik. Eguraldia da inportanteena. Iaz, euria egin zuen eta ikusle gutxiago egon zen. Dena den, irailean egiten dugunetik ikusleek eta gidariek ondo erantzun dute. Egia esan, ezin gara kexatu".

ESANAK

**"Aramaioko errepideetan lanean dihardute, baina ohiko ibilbidea egiteko arazorik ez dugu izango"**

**Julen Agirre** > Antolatzaile taldekoa

DATUA

**6,7**
**KILOMETRO**

Hori da parte-hartzaileek egin beharreko distantzia. Ibarratik, Etxaguengo bidegurutzeraino aldapa gora egingo dute. Ondoren, Gantzagarako bidetik helmugara, aldapa behera joango dira.

**MENDIA** > AKORDIOA

## Mendizaletasun arduratsua bultzatzeko hitzarmena

Euskal Mendizale Federazioak eta Felix Baltistan Fundazioak sinatu zuten akordioa ekainean

**M.B.** > ARRASATE

Euskal Mendizale Federazioak eta Felix Baltistan Fundazioak mendizaletasun etiko eta arduratsua bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten ekainaren 20an Gasteizen. Txomin Uriarte, Euskal Mendizale Federazioko presidenteak, eta Txema Camarak, Felix Baltistaneko koordinatzaileak sinatu zuten akordioa.

**GIZAKIAK ELKARTU**

Euskal Mendizale Federazioak sei urte daramatza kolaboratzen Felix Baltistan Fundazioarekin. Azken horrek, hainbat proiektu egiten dihardu Baltistanen, Pakistango iparraldean. Han, lau zortzimilako daude: K2, Broad Peak, Gasherbrum I eta Gasherbrum II.

Txema Camarak "asko eskertzen" du Euskal Mendizale Federazioaren kolaborazioa: "Alde batetik, laguntza ekonomikoa eskertzen dugu; eta beste alde batetik, Federazioa aliatu estrategikoa da guretzako, gure ideiak bultzatzeko".

Txomin Uriartek esan zuen mendiak "gizakiok elkartzen" gaituela: "Felix Baltistan Fundazioaren lanak erakusten digu mendiko munduaren bihotza oraindik bizirik dagoela. Mendiak ez dizkigu bakarrik erronkak ipintzen eta esperientzia pertsonal ikaragarriak eskaintzen. Gizon eta emakume hobeak bihurtzen gaitu".

Akordioaren helburua da mendizaletasun etiko, arduratsu eta elkartasun handiagokoa lortzeko indarrak batzea.



Txomin Uriarte eta Txema Camara hitzarmena sinatzen. GOIENKARIA

**TXIRRINDULARITZA**

## Mikel Aristi: "Indar barik geratu naiz bukaeran"

**M.B.** > BERGARA

Mikel Aristik egundoko lana egin zuen atzo La Granjan (Segovia) jokatutako gazte mailako Espainiako txapelketan. Beste hiru txirrindularirekin ihesaldia egin zuen 30. kilometroan. Lasterketa-buru izan ziren 60 kilometrotan, baina, helmugarako 10 kilometro falta zirenean, harrapatu egin zituzten. "Gogorra izan da, baina gustura nago. Ihesaldian eroso egon naiz. Guztiok egin dugu lan. Dena den, azken itzulian indar barik geratu naiz. Bero handia egin du, eta ura edan dugun arren, ezinezkoa egin zaigu ihesaldia mantentzea", esan zigun txapelketa bukatu bezain pronto Aristik.

**PILOTA** > OÑATIKO PLAZAKO TXAPELKETA

# Plazako pilota txapelketako finalak, egubakoitzean

Bihar, baina, kadete eta gazte mailetako bigarren finalerdiak jokatuko dituzte, 18:30ean

Guztira, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako, Arabako eta Errioxako 32 bikote lehiatu dira

**A.M. / M.B.** > OÑATI
Egubakoitz arratsaldean jakingo dugu zeintzuk diren Aloña Mendik antolatzen duen Oñatiko plazako pilota txapelketako irabazleak. Izan ere, kadete eta gazte mailetako finalak jokatuko dituzte, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu kiroldegian jokatuko dituzte partiduak.

Aurretik, baina, bigarren finalerdiak jokatu beharko dituzte bihar. Kadete mailako finalerdian Txoret-Imaz bikoteak Erostarbe-Imaz bikotearen kontra jokatuko du. Gazte mailako finalerdian, Ariztimuño-Azpitarte eta Landa-Labaka neurtuko dira.

Partidu horietako irabazleak Ansa-Otamendiren (kadeteak) eta Rezusta-Arratibelen (gazteak) kontra lehiatuko dira. Eurak nagusitu ziren, hurrenez hurren, Gallastegi-Murgiondo (22-15) eta Sarrasti-Imazen (22-12) kontrako finalerdietan.

**PILOTARI ONENAK**
Urtero Aloña Mendiko pilota sailak antolatzen duen txapelketan 32 bikote lehiatu dira : 16 kadeteak, eta gainerako 16ak gazteak. Maila horietako pilotari onenak lehiatu dira; hain zuzen ere, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako pilotari onenak. Aurtengoa 12. txapelketa da.

DATUA

**32**

**BIKOTE**

Horiek dira pilota txapelketa jokatu duten bikoteak. 16 Kadete mailan lehiatu dira, eta gainerako 16ak Gazte mailan. Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Errioxako bikoteak dira.

Antolatzaileek bi helburu bete gura dituzte: alde batetik, kadete eta gazte mailako pilotarien denboraldia apur bat luzatu gura dute; eta beste alde batetik, estali bako pilotalekuko txapelketa indartu gura dute. "Oso txapelketa gutxi jokatzen dira pilotaleku irekietan, eta jokalariek gustura jokatzen dute", esan digu pilota saileko arduradun Julian Doradok.

Dena den, eta urteroko hitzordua izan arren, ikusle gutxi erakartzen ditu Oñatiko txapelketak. Antolatzaileak kezkatuta daude. "Urte asko dira, baina herritaren erantzuna eskasa da urtero. Finalen egunean, agian, ikusle gehiago etorriko dira. Eguraldiak zeresan handia dauka, baina partiduak lanegunetan jokatzen dituzte. Pilotalekua herri erdian dago, ez dugu sarrera kobratzen...Baina, ez dugu babesik, eta nahiko triste gaude", esan digu Doradok.



Argazkian Julian Dorado epailea Kadete mailako pilotarien partidua zuzentzen dabilela. GOIENKARIA

**TRIATLOIA** > IRON MAN

## Bi debagoiendar izango dira abuztuaren 1ean Boltonen egingo den Iron Man proban

Julen Kortabarria oñatiarrak lehen aldiz parte hartuko du, eta Joseba Susaeta bergararrarendako 14. aldia izango da

**A.M.** > ARRASATE
Kirol frogarik gogorrena da Iron Man triatloia. Urtero, Hawaiien egiten den munduko triatloi txapelketarako sailkapen froga izango da Julen Kortabarria oñatiarrak eta Bergaran bizi den Joseba Susaeta zornotzarrak egingo dutena. Proba abuztuaren 1ean jokatuko dute Boltonen (Erresuma Batua).

Kortabarriarentzat lehenengo Iron Mana izango da, baina Susaetak dagoeneko 13 aldiz parte hartu du munduko frogarik gogorrenean. Oñatiarrarentzat lehenengo helburua proba bukatzea da. "Lehengo Iron Mana izanik nire gogoa proba bukatzea da", dio. Hori lortzeko 10-11 ordu beharko dituela esan digu.

Iron Manean igeriketa egin, bizikletan ibili eta korrika egin beharko dute; hain zuren ere, 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta 42,2 korrika. Guztira, 226 km dira, eta proba egiteko prestaketa fisiko eta psikologiko handia behar dute parte-hartzaileek.

**TRIATLOIAK GORA**
Gero eta zale gehiago ditu triatloiak, baita gurean ere. Guztira, 55 bat partaide dituzte ibarreko taldeek, eta urtetik urtera kopurua handitzen doa. Kide gehien dituen taldea Oñatiko Antxintxika da, 30 kiderekin.

**TXIRRINDULARITZA** > DONOSTIAKO KLASIKA

## Irizarrek eta Velascok parte hartuko dute Donostiako Klasikan

Ziklistek 234 kilometro egin beharko dituzte, baina ez dira Debagoieneko errepideetatik pasako

**A.M.** >ARRASATE
Zapatuan jokatuko dute Donostiako Klasika. 21 taldek parte hartuko dute, tartean Euskaltel Euskadi, RadioShack eta Astana taldeek. Tartean, Markel Irizarrek eta Iban Velascok jardungo dute. Oñatiarra Frantziako Tourrean parte hartu duten ziklista onenen kontra lehiatuko da. Txirrindulariak 11:00etan irtengo dira Boulevardetik, eta 234 kilometro egin beharko dituzte Gipuzkoan barrena. Baina, tropela ez da Debagoinetik pasako –iaz, Bergaratik eta Oñatitik pasa zen–.

**JAIZKIBEL, BI ALDIZ**
Donostiako Klasikako berrikuntza nagusia da Jaizkibel (lehen mailako mendatea) eta Arkale (bigarren mailako) mendateak birritan igoko dituztela. Igoera horietako batean egon daiteke probako kakoa. Artale bigarren aldiz igotzen dutenetik, 15 kilometro bakarrik izango dituzte txirrindulariek helmugara heldu aurretik.

**FABORITORIK EZ**
Klasikoetan ez da faborito bakarra egoten. Contador, Rodriguez, Schleck, Basso, Menchov eta Sastre egongo dira irteera puntuan. Iaz, Quick Step taldeko Carlos Barredak irabazi zuen.

> TXIRRINDULARITZA

### Tourreko porrako sari banaketa egingo du Lokatzak bihar

Lokatza taldekoek jaia egingo dute bihar, 20:00etan Irala kalean, Tourreko porrako sariak banatzeko. Lehen hiru sailkatuek euren sariak jasoko dituzte. Guztira, 458 parte-hartzaile izan ditu. Sari banaketan parte hartuko dute Jon Odriozola eta Mikel Pradera txirrindulari ohiek.

> FUTBOLA

### Antzuola kirol elkarteak batzarra, egubakoitzean

Antzuola Kirol Elkarteak urteko batzarra egingo du egubakoitzean 19:00etan, Olaran etxean. Besteak beste, denboraldi berriaz jardungo dute: zuzendaritza batzorderako aurpegi berriak behar dituzte. Gainera, Iban Unanue entrenatzailearendako ordezkoa behar dute.


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com
irailak 17
izena emateko azken eguna

**Jon Lizarralde** > Bizikleta mekanikoa

# "Schleck-i katea irten zitzaionean... mekanikoa larrituko zen, seguru!"

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

**Jon Lizarralde (Oñati, 1981) ezaguna da ibarreko zikloturista askorendako, euren bizikleten "medikua" da-eta. Lanean tartetxo bat hartu dezakeenean Lizarralde kirolak dendako tailerra egun batzuetarako utzi, maletak egin, eta txirrindularitza talderen batekin joaten da, munduko ziklista onenendako lan egitera.**




Jon Lizarralde, aste barruan, Lizarralde kirolak dendako tailerrean. MIREN MANIAS

**Austrian egon berri zara, Footon-Servetto taldearendako mekaniko lanetan. Zer moduz?**

Oso ondo. Eguraldi ederra izan dugu lasterketan, eta paraje ederretan ibili gara. Taldeari dagokionez, berriz, ziklistek ez dute nahi moduko lasterketa egin.

**Polita izango da lasterketak barrutik jarraitzea.**

Bai, lasterketan gertatzen ari denaren informazioa izaten dugulako. Lasterketan mekanikoak normalean auto barruan joaten gara, ziklistei ura ematen. Edo bestela jateko postuetan, masajistekin batera, ziklisten zain.

**Zelakoa izaten da zuen lanegun bat?**

Goizeko 07:30 inguruan jaiki eta gosaldu ostean bizikletekin hasten gara lanean. Txukun jarri, eta irteera puntura. Lasterketan autoan joaten gara gertatzen diren arazoak konpontzeko, eta lasterketa amaitutakoan hasten da benetako lana. Bizikletak konpondu, garbitu eta hurrengo egunerako prest utzi. Autoak ere guk garbitzen ditugu.

**Ikusleen aurrean garbi egon behar da dena.**

Askotan ziklistek egiten dutena baino garrantzitsuagoa izaten da auto eta bizikletak garbi izatea (barre). Azken batean, babesleen izenak autoetan azaltzen dira, eta bizikletetan.

**Talde askotan egon zara lanean. Nork ditu baliabide onenak?**

Jendeak dioenez Katusha talde errusiarrak diru asko du, baina eurekin lanean egon naizenean ez dut aparteko baliabiderik ikusi. Discovery taldean egon nintzenean, berriz, han bai, han lanerako oso baldintza onak genituen.

**Eta Euskaltelen?**

Euskaltelen gutxi ordaintzen dute! (Barre). Baina, horrekin batera esan behar dut giro aparta dagoela taldean, giro euskaldun jatorra, eta hori ere eskertu egiten da.

**Mekanikook tropel barruan ere lagun onak egingo dituzue, ala?**

Bai, azkenerako jende asko ezagutzen duzu, eta talde askorekin ibiliz gero lanean, bada, gehiago. Esaterako, Iñigo Landaluzerekin oso harreman ona egin nuen, eta Luis Leon Sanchez ere oso tipo jatorra da.

Askotan gertatzen da euren taldean zaudenean askok jator jokatzen dutela, baina beste talde batera joaten zarenean aurpegira ere ez zaituztetela begiratzen; Pozzatorekin gertatu zait hori.

**Dendako bezeroek, ala ziklista profesionalek ematen dituzte burukomin gehiago?**

Ziklista profesionalek, duda barik. Badaude oso bezero zorrotzak, baina ziklista batzuk...

**Ze txirrindularik eman dizkizu horrenbeste burukomin?**

Horretarako errusiarrak dira txarrenak, Katusha taldean detaile guztiak asko zaintzen dituzte, eta gainean egoten dira beti. Orokorrean, baina, txirrindularia geroago eta hobea izan, inportantzia gutxiago ematen die horrelako kontuei. Masajista batek ere gauza bera esango dizu: puntako ziklistak masajeak hartu beharrean logelara joaten dira deskantsatzera.

**Gertutik jarraitu duzu Frantziako Tourra?**

Tourreko lehenengo astea Austrian igaro nuen, eta hasierako hamar egunetan ez nintzen askotaz enteratu. Gero bai, dendan piztuta izaten dugu telebista. Esango nuke ziklistak orokorrean gehiago arduratu direla daukatena ez galtzeaz, gehiago irabazteaz baino.

**Ez ditugu beste urte batzuetako erakustaldiak ikusi, ezta eraso erabakigarriak ere.**

Beldur handia egon dela esango nuke, ziklisten artean errespetu askotxo. Niretako larregi baloratzen dugu Tourrean bigarren edo hirugarren egiteari, eta horren erruz ziklistek ez dute arriskatu nahi izaten.

Niretako meritu handiagoa du ausarta izan eta erasoa jotzeak, nahiz eta gero emaitzarik ez lortu. Hau da, lehenengo postuan sailkatzen ahalegindu eta bosgarren geratzeak meritu handiagoa du hirugarren edo laugarren postuari eusteak baino.

**Andy Schleck-ek izan zuen arazo mekanikoa izan da Tourrak utzi duen une gogoangarri bat. Ez nuke momentu hartan mekanikoaren lekuan egon nahi...**

Ba, Schlecken mekanikoa Oiartzungoa da, Iñaki, eta larrituko zen, seguru. Baina, errua ez zen mekanikoarena izan. Katea bizpahiru piñoi beherago izango balu ez luke arazorik izango, baina goialdean izanda katea gurutzatuta izango zuen, eta hor egon zen arazoa.

Mekanikoki mugak ere egoten dira, eta katea gurutzatuta badago, bizikleta gainean pedalkadak emanez piñoiez aldatu nahi izanez gero gertatu daitekeen zerbait da.

**Abuztura begira baduzu kanpora joateko beste proposamenen bat.**

Caisse d'Epargne taldetik deitu didate orain bertan, abuzturako, baina ez dut uste joan ahal izango dudanik, dendan lana asko dugu-eta.

AURREKONTUA

**"Egon naizen taldeetatik Discovery-n ikusi ditut lanerako baliabide gehien"**

LANA

**"Dendako bezeroek baino ziklista profesionalek ematen dituzte buruhausteak"**

TOURRA

**"Aurtengo Tourrean ziklisten artean beldur handia egon dela esango nuke, errespetu asko, eta arriskatzeko gogo gutxi"**

**HEZIKETA** > PSIKOLOGIA

# Umeak baikortasunean hezteak dituen onurak azpimarratu dituzte

Gurasoek baiezko pentsamenduarekin funtzionatzen badute umeek igarri egiten dutela diote 'noesiterapiaren' defendatzaileek


Umetxoa aitaren altzoan, pozik. ICARRIQUE

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Adimena lantzea proposatzen dute *noesiterapiako* kideek; baiezko pentsamenduak lantzea, alegia. Defendatzen dute umekiak amaren sabelean dagoen unetik sumatzen duela pentsamendu baikorren edo ezkorren eragina, eta lotura hori ez dela jaiotakoan eteten. "Ulertu behar dugu erditzearen ondoren mozten ez den zilbor-heste psikologiko bat mantentzen dela umearen eta amaren artean. Umeak modu askean hartzen du arnasa, baina ez du oraindik modu askean pentsatzen, eta xurgatu egingo du bere ondoan egiten dugun edo pentsatzen dugun guztia".

**BAIKORTASUNEZ JOKATU**

Gau txar baten aurrean, esaterako, gomendatzen dute umea goxoki altzoan hartzeko eta lauzpabost urte izango balitu moduan hitz egiteko. "Esan, adibidez, tripa edo hortzak lo goxoan dituela, edo defentsak lanean dituela sukarra eragiten dion mozorrotxoa mendean hartzeko". Defendatzen dute, halaber, gaizki dagoela ume bati "erori egingo zara" esatea. "Esan behar zaio ondo begiratzeko oinak non ipintzen dituen", diote. "Baiezko pentsamenduarekin umeak motibatu egiten ditugu", ziurtatzen dute. Eskolara joan nahi ez badute edo jan nahi ez badute berdin jokatzeko gomendioa egiten dute.

**GARAPENA** > ESPAZIO-DENBORA

## Kopuruaren, espazioaren eta denboraren garapena

**L.Z.** > ARRASATE

Hitz egiten ikasi ez badute ere bederatzi hilabete baino ez dituzten haurtxoek "kalkuluak egiteko" gaitasuna badutela egiaztatu dute AEBetako Emory Unibertsitatean egindako ikerlan baten bidez. Haur txikiek berezko "trebetasun matematikoak" ere badituztela ondorioztatu dute zientzialariek, edo, gutxienez, oso goiz ikasteko gai direla. "Halako baino gehiago" edo "halako baino gutxiago" kontzeptuekiko sentikorrak direla diote, eta hasiera baten uste baino goizago, gainera.

**AURKIKUNTZA INTERESGARRIA**

Informazio kuantitatiboa nola prozesatzen dugun ikertzen jarraitzeko asmoa dute. Badira eragiketa matematikoak ulertzeko eta egiteko zailtasunak dituzten pertsonak, eta esparru hori orain artean gutxi aztertu dute.

**HEZIKETA** > JARRERA DESEGOKIAK

## Umeen jarrera desegokiei aurre egiteko teknikak

**L.Z.** > ARRASATE

Areagotu egin dira jarrera arazo kasuak umeen zein nerabeen artean. Gregorio Marañon ospitaleko haur psikiatria saileko arduradun Maria Jesus Mardomingoren esanetan, kointzidentzia batzuk antzeman dituzte; garapen ekonomiko handiagoa, familia estrukturen aldaketa eta emaitza akademikoen jaitsiera, tartean.

**TEKNIKA BATZUK**

Seme-alabei denbora eskaintzea, jarrera egokiak sustatzea, muga argiak ipintzea eta horren defentsan sistematikoa izatea, umeei argitasunez hitz egitea eta zaintzaile ezberdinen arteko konplizitatea dira jarrera horiei egoki aurre egiteko osagai nagusiak, adituen esanetan. Jarrera egokiei arreta ipintzea oso garrantzitsua da.


Umea haserre. PINK SHERBET

**SEGURTASUNA** > GARRAIOA

## Autoko atzeko eserlekuan zenbat ume sartzen dira?

**L.Z.** > ARRASATE

Bi ume sartzea ez da zaila izaten, ezusteak hiru ume sartu behar direnean iristen dira. Segurtasun-aulkien bolumenagatik edo autoen ezaugarriengatik buruhauste bat baino gehiago sortzen da kasu horietan. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak (OCU) familiarentzako moduan saltzen diren 15 autoren ezaugarriak aztertu ditu. Peugeot 807, Renault Kangoo, Volkswagen Touran, Renault Grand Scenic eta Peugeot 5008 modeloetan arazo barik eraman daitezke hiru ume atzeko aulkian. Hirugarren aulkiak aulki-elebadorea behar du Seat Exeo, Volkswagen Golf, Toyota Verso, Opel Zafira, Opel Insignia, Opel Astra, Ford C-Max, eta Ford Mondeo Break modeloetan. Eta ez dira atzeko aulkian hiru segurtasun-aulki sartzen Renault Megane eta Citroën C3 Picasso autoetan.



Umea segurtasun-aulkian bapo lo. GERARDO PORRAS

**JAKIN BEHARREKOAK**

Airbag sistema deskonektatuta dagoela segurtasunik izan ezean, ez da umerik aurreko eserlekuan eraman behar. Segurtasun-aulkia erosi aurretik ziurtatu autoan ondo sartzen dela, aulki batzuk beste batzuk baino zabalagoak dira-eta. Isofix sistemadun aulkiak dira seguruenak. Instalazioa ez da batere erraza, baina bideoa lagungarriak badaude. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak (OCU) segurtasun-aulki ezberdinak aztertu ditu.

> OSASUNA

### Aire girotuak arnasketa arazoek gora egitea eragiten duela diote sendagileek

Katarroak, eztarriko minak, hotzeriak, laringitisa edo faringitisa... Adituek diote aire girotua gaizki erabiltzeak udako katarroen %50 eragiten duela. Umeekin bidaiatu behar izanez gero kontuan hartu beharreko aholkuak eman dituzte. Tenperatura 25 graduan kokatzea eta beroaldia hasten den bakoitzean tresna horien iragazkiak edo filtroak garbitzea gomendatzen dute sendagileek. "Bakteriak edo onddoak pila ditzakete barnealdean", diote.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
zatoz gure webgunera
guraso.com



**> ARTISAU AZOKA**
Natura protagonista, ARTasok Arantzazun egindako azokan **> 30**




**> GURE TALDEAK**
Azkaiter Peloxek zuzeneko diskoa grabatu du The Road Band-ekin **> 32**



**> XABIER LEKUNBERRI**
Bizardunak musika taldeko ideologoarekin berbetan **> 40**

# Buriatiako kolore eta doinuek San Martin plaza txunditu zuten

**ERRUSIATIK**

Baikalskie Volni dantza taldeak Siberiako folklorea ekarri zuen

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Egubakoitzekoa iluntze exotikoa izan zen Bergarako San Martin plazan; Buriatiako (Errusia siberiarra) Baikalskie Volni taldeak egin zuen exotiko.

Alfonbra gorri bat izan zuten eszenatoki bakarra, baina Buriatiakoek ez zuten gehiago behar izan: dantzarien jantzi erregional koloretsu eta biziak eta musikarien instrumentu bitxiak nahikoa izan ziren Bergarako San Martin plaza jantzi eta eszenatoki dotore bilakatzeko.

Baikalskie Volni taldeak Portugaleteko 36. Folklore Jaialdian parte hartu du eta handik Bergarara etortzera gonbidatu zituen Udalak. Esker ona adierazteaz gainera, Agurne Barruso alkateak oroigarri bat eman zien taldeko kideei.

**BITXIA BEZAIN POLITA**

Buriatiako dantzariek lehenengo minututik harrapatu zituzten bergararrak. Gehienek Buriatiako Errepublika non dagoen ere ez zekiten, baina gustuko zuten ikusten eta entzuten ari zirena; txalo zaparradek behintzat, horixe adierazten zuten.

Musikaren dotoreziak eta kalitateak eta dantzen ikusgarritasunak berezi egin zuen egubakoitzeko emanaldia, berehala ahazten ez diren horietakoa.

Dantzariek bost dantza ikuskizun egin zituzten, jantzi erregional desberdinak erakutsiz. Dena dela, zalantza barik, ipotx moduko panpin batzuen dantza dibertigarriek eragin zuten barre eta algara gehien. Baikalskie Volni taldeari esker Buriatia aurrerantzean ez da horren hitz arrotza izango Bergaran, eta zuzenean kolore, bizitasun eta alaitasunarekin lotuko da.

**ARRASATEN FOLKLORE GEHIAGO**

Bihar, martitzena, munduko dantza eta folklore gehiago ezagutzeko aukera izango da, Arrasaten. Indiako Panghat dantza taldeak eta Daguestango Errepublikako (Errusia) Lezginka taldeak emanaldia egingo dute Monterron parkean 22:30ean.



Buriatiako jantzi erregionalek bizitasun handia eman zioten emanaldiari. JULIO CALLEJA



Dantzariek lau dantzaldi egin zituzten, bakoitzean jantzi erregional desberdinak erabilita. J.C.

OÑATIN

## Txinako Tianjin Acrobatic Troupe taldeak ikuskizuna egingo du abuztuaren 29an

Udaroko hitzordua bilakatzen ari da Txinako akrobazien ikuskizuna Oñatin. Aurreko bi urteetan etorritako taldeek herritarren arreta piztu eta sekulako arrakasta izan zuten. Hori horrela gaztelekuko arduradunek, aurten ere, 'Kalean 2010' egitarauaren barruan Txinako akrobaziei tartetxoa egitea erabaki dute. Tianjin Acrobatic Troupe taldea etorriko da, eta herriko plazan egingo dute ikuskizuna, abuztuaren 29an, 19:00etan.

Tianjin Acrobatic Troupe taldea 1948an jaio zen eta ordutik hona 30 saritik gora irabazi ditu. Ume eta helduek hartzen dute bertan parte eta Txinako akrobazien artearen garapenean garrantzia eta zeresan handia izan duen taldea da.



Baikalskie Volni taldeko musikariak kontzertuaren momentu batean. J.C.

**ARTISAU AZOKA** > ARANTZAZUN

# Sustraitzen doan artisau azoka egin zuten Arantzazun atzo, domeka

Eztia, gazta, xaboiak, zeramika eta beste hainbat artisau produktu zeuden

Hirugarren urtez antolatu dute azoka hori, pixkanaka hazten doana



Hamar stand jarri zituzten Arantzazuko elizako plazan. JULIO CALLEJA

**LANDER MUÑAGORRI** > OÑATI

Santiago eguna atzo, azken hiru urteetan bezala, artisau azoka egin zen Arantzazun. Urtero ardatz bat hartu ohi dute antolatzaileek, horren baitan artisau ezberdinak aukeratzeko. Iaz artzaintza baldin bazen gai nagusia, aurten natura izan da azokaren abiapuntua. Era horretan, eztia, gazta, zumitza, kaikuak, xaboia, zeramika eta ildo bereko hainbat produktu saldu zituzten hamar postutan zehar. Eskulangileek bien bitartean lana nola egiten duten erakutsi zuten.

Jende ugari elkartu zen Arantzazun domekan, Santiago eguna aitzaki. Horiek guztiek azokatik osteratxoa egiteko aprobetxatu zuten aukera. Antolatzaileen hitzetan, oraindik feria xumea da, baina urteen poderioz "pixkanaka koxkortzen joateko asmoa dauka".



Haurrek bertatik bertara ikusi ahal izan zuten egurra nola lantzen den. J.C.



Egurra nola zizelkatzen duten erakutsi zuten artisauek. J.C.

**KULTURA** > ABUZTUAN ZER

# Abuztuko eguaztenetan aire libreko kontzertuak egingo dituzte Bergaran

Lauroba, Sorkun, Aupa 4tet eta The Romanticos taldeen emanaldiak Irala kalean eta Espoloian egingo dituzte, 22:00etan hasita

**L.M.** > BERGARA

Abuztuko egun beroei aurre egiteko, musika freskoa egongo da Bergaran. Izan ere, eguaztenero, aire libreko kontzertuak antolatu ditu Kultura Sailak. Oraingo hilabete hau oporretan joateko aprobetxatu ohi izan da, baina Bergaran geratzeko arrazoirik ere egongo da.

Uztailean, Espoloian jazz edo blues musikaren laguntzarekin Ostiral Musikalak egin baldin baziren, oraingoan pop, rock, blues edo doinu akustikoek edukiko dute presentzia Bergaran. Eguaztenero gaueko hamarretan hasita, talde batek emanaldia eskainiko du Espoloian edo Irala kalean. Eguraldi txarra izanez gero, Iralatik Espoloiara aldatuko da zuzenekoa.

Lehenengo kontzertua Lauroba talde donostiarraren eskutik etorriko da, abuztuaren 4an. Orain ez asko *...Egunarekin* diskoa plazaratu dute, eta aurkezpen kontzertuen barruan etorriko dira Bergarako Irala kalera.

Hurrengo astean, hilaren 11n, Sorkun oreretarrak emanaldi akustikoa eskainiko du. 2002an ekin zion bakarkako ibilbideari abeslariak, eta orduz geroztik hainbat estilo landu izan ditu. Oraingo honetan, akustikoko formatuan kontzertuak egiten dabil Sorkun. Kontzertua Espoloian egingo dute.

Abuztuaren 18an, berriz, Aupa 4tet hari laukoteak Irala kalean egingo du kontzertua. Formazio klasikoa baldin bada ere, inondik ere ez dute musika klasikorik egiten. Jazza, rocka, musika balkaniarra eta beste hainbat estilo musikal lantzen dituzte. Ikusleen artean harridura sortuko dute, ezbairik gabe.

Eta abuztuko eskaintza musikalari amaiera emateko, hilaren 25ean The Romanticos taldea arituko da, Espoloian. Iker Piris gitarra-jole tolosarraren talde berria da hori, eta besteak beste blues eta funk musika lantzen dute.

**ZINEA, ARRASATEN**

Musikaz gainera, zinera joateko aukera ere izango da abuztuan, Arrasaten, kasu horretan. Uztailean bezala, abuztuan ere Monterron parkeko emanaldiek aurrera jarraituko dute. Film guztiak 22:30ean hasiko dira.

Hasteko, abuztuaren 6an, egubakoitza, *Spanish Movie* filma eskainiko da. Hainbat pelikula arrakastatsuen parodia egiten dute film horretan.

Hilaren 13an, berriz, *Yo también* pelikula emango da. Azken Goya sarietan aktore eta kantu onenaren sariak eskuratu zituen.

Abuztuaren 20an, *Furia de titanes* akziozko filma eskainiko da. 1981 Desmond Davis-en izen bereko pelikularen *remake*a da hori.

Amaitzeko, abuztuko azkeneko egubakoitzean, hilaren 27an, *Oceanos* film dokumentala eskainiko dute.

## Aire libreko kontzertuak

**Abuztuak 4, eguaztena**
**22:00** Lauroba
Domingo Irala kalean.
Sarrera: doan.

**Abuztuak 11, eguaztena**
**22:00** Sorkun
Espoloian.
Sarrera: dkoan.

**Abuztuak 18 eguaztena**
**22:00** Aupa 4tet
Domingo Irala kalean.
Sarrera: doan.

**Abuztuak 25, eguaztena**
**22:00** The Romanticos
Espoloian
Sarrera: doan.

OHARRA: Abuztuaren 4an eta 18an Domingo Irala kalean eskainiko dira kontzertuak. Aire librean eskainiko dira emanaldi horiek, baina eguraldi txarra egingo balu, Espoloiara aldatuko lituzkete. Uztaileko Ostiral Musikalak amaitu eta gero, abuztuan rock, pop, blues, funk eta doinu akustikoak izango dira, Kultura Sailaren eskutik.



# UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***



**UDABERRIKO BERDETASUNA.** Aretxabaletako Arientzan ateratako argazkia honetan udaberri lehertu berriaren kolorea ikus dezakegu. Paisaia eder hau aurtengo maiatzean aterata dago, berdetasuna gordinenean dagoenean. /Argazkia: Nahia Errasti /Aretxabaleta




**MUGITUKO DA.** Gu Hodei eta Unax gara, eta ikusten duzuen moduan Elkororen aldeko plataformarekiko elkartasuna La Lanzadara ere (Pontevedra) iritsi da. /Argazkia: Maider Murgizu de Azua /Bergara



**ILUNABARRA.** Eguraldi ederra lagun, Hendaiako ilunabarrari atera dio argazkia Julian Carmonak. Itsasontziari itsaso maila beheregi geratu zaio oraingoan. /Argazkia: Julian Carmona /Eskoriatza

## Oinarriak:

- **Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta nongoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

## Sariak:

- **1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n asteburuko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



BABESLEA:
Laguntzaileak:

GURE TALDEAK

## Azkaiter Pelox




Amaia Azpiazu, Eñaut Marti, Raul Lozano, Mikel Ilarduia, Unai Azkarate eta Ebert Sanchez, zuzenekoa grabatzen. ALEX MOLANO

# "Zuzenekoa grabatu dugu zerbait ezberdina egitearren"

Azkaiter Peloxek zuzeneko diskoa grabatu du The Road Band taldearekin: kantu batzuk Bergaran eta beste batzuk Orion

Bederatzi kantu grabatu ditu: zazpi eurek sortutakoak dira eta beste biak bertsioak; gainera, 'bonus-track' bat sartu dute

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Azkaiter Pelox bergararrak zuzeneko diskoa grabatu du The Road Band taldearekin. Aurkezpen kontzertua Bergaran egin zuten eta dagoeneko jarri dute diskoa salgai. Uztailean hainbat kontzertu egin dituzte. Azkaiter Peloxekin egin dugu berba.**

**Zuzeneko disko berria aurkeztu zenuten uztail hasieran Bergarako igerilekuan. Nola joan zen?**

Egia esan, oso ondo. Agorrosinen jende asko batu zen: igerilekuan zeudenak, futbol txapelketako finala ikusten zeudenak, kontzertura propio joandakoak... Ikusle mordoaren berotasunarekin aurkeztu genuen diskoa. Oso gustura egin genuen zuzenekoa.

**Zuk zeuk idatzitako kantuak eta bertsioak grabatu dituzue. Zergatik bertsioak?**

Garbi geneukan hasieratik geuk idatzitako abesti propioekin osatu nahi genuela diskoa. Bertsioetako bati, neronek sortutako hitzak gehitu dizkiot. Beste bertsioak rockabilly estiloa jorratzeko aukera eman dit.

**Zer kontatzen duzu zure abestietan?**

Kontu asko: bizitzaren garrantzia, denboraren desmaterializazioa, bidaiaren hasiera eta bukaera... Rock abesti estandar bati egindako parodia bat idatzi dut *Behi bi, behi bi* abestian. Eta *Zure begietako distira* abestian maitasunari buruz konplexu barik idazten saiatu naiz.

**Zergatik zuzeneko lana?**

Mahaster River eta Fly Shit taldeekin ez nuen zuzenekorik grabatu. Banuen zerbait ezberdina egiteko gogoa. Zuzenekoetan sortzen dugun giroa islatu nahi nuen. Ideiarekin ados zeuden DB Uhinakeko Mikel Ilarduia eta Aimar Iza teknikari bergararrak.

**Ezberdintasun asko daude zuzeneko disko bat eta estudioko disko bat grabatzearen artean?**

Bai, grabazio prozesua guztiz desberdina da. Estudioko grabazioak lasaiagoak dira: musikari bakoitzak bere pistak grabatzen ditu. Zuzenekoetan, baina, guztiok batera jo behar izan dugu. Dena den, teklatu, harmonika eta koru batzuk post-produkzioan grabatu genituen.

**Oraingo honetan The Road Band taldearen laguntza izan duzu. Nolako esperientzia izan da?**

Oriotarrez osatutako talde bat sortu genuen 2008an, eta haiekin eman genituen Azkaiter Pelox Band izenpean lehenengo kontzertuak. Azken grabazioan Orioko Eñaut Marti musikariaren laguntza izan dugu baxujotzaile moduan, eta Bergarako Mikel Ilarduia eta Raul Lozano bateria-jotzaile eta gitarra-jole moduan. Ahotsa Amaia Azpiazu oñatiarrarena da.

**Diskoa bi kontzertutan grabatu zenuten: Bergaran eta Orion.**

Bai, Orioko Kalakari tabernan eta Bergarako Laino Skate parkean grabatu genuen. Emaitzarekin oso gustura gaude.

**Uztailean bost kontzertu egin dituzue. Nolako harrera egin dizuete entzuleek?**

Entzuleen harrera oso bestelakoa da Bergaran, Orion edo Donostian aurkeztuz gero. Dena den, guretako entzule guztiak dira onak.

**Non eros daiteke diskoa?**

Bergarako Laino, Etxagi, Nahikari eta Hamaika tabernetan; eta Orioko Kalakarin eta Unarren.

**Erreferentziaren bat baduzu edo baduzue musika egiteko orduan?**

30 urte ditut eta dagoeneko konturatu naiz gauzak ondo egiten dituzten pertsonak direla nire erreferente.




### Kolorez eta ñabarduraz jantzitako lana

Unai Azkarate bergararra oso ezaguna da, batez ere, pipermin hutsa delako eta oraingoan ere lortu du jende mordoa batu eta kolorez eta ñabarduraz jantzitako diskoa bizpahiru egunetan grabatzea. Dotorea da emaitza.

Bluesa, 60ko hamarkadako rocka, Rory Gallagherren ukitua, rock indartsuagoa, Cream eta Vince Taylorren bertsio borobilak eta baita (trip)-hopa ere aurkitu ditugu lan horretan (azken hori, gainera, Laino skateparkekoendako espreski idatzia).

**Iker Barandiaran.**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**

**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# iragarkilaburrak.com

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Zelaietan etxebizitza salgai, 124 m2,2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garajea eta ganbara. Bizitzera sartzeko prest. 691-73 10 75

**Altsasu.** Hiru logela, egongela bat, sukalde handia, trastelekua, balkoi bat aurrealdera eta bestea atzealdera, bajera eta kamarotea edo ganbara. Hornituta. Ekonomikoa. 948-46 09 08.

**Aramaio.** 92 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. 30 metro koadroko ganbararekin. Berritu beharra du. 99.000 euro. Jaione. 615-73 85 77

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659-64 67 38

**Aretxabaleta.** Apartamentua salgai, garajearekin. Bi logela, komuna, sukalde-egongela eta bi balkoi. Etxeak 55 metro koadro dauzka eta garajeak 25. 646-06 86 29

**Beasain.** Pisua salgai Beasainen, Nafarroa etorbidean. 105 metro, dena kanpoaldera eta sukaldea, komuna, egongela eta lau logela ditu. Eguzkitsua da. Konponketak behar ditu. Deitu 978-92-92-21

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubieta kalean. Eraikuntza berrian. Eguzkitsua. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Erdi jantzia. 174.300 euro negoziagarri. 629-71 12 26 edo 650 10 34 93

**Bergara.** 70 metro koadroko etxea salgai Artekalen. Ganbara eta guzti. Eguzkitsua. Prezio oso interesgarria. 675-70 79 54 edo 943-76 14 01

**Durango.** Durangon etxebizitza salgai. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpora ematen du; oso argitsua da. Pisu altua 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro. 696-255 083

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza elektrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636-15 85 35 (Bitori)

**Guardamar del Segura (Alacant).** Aukera bikaina. Apartamentua salgai. Egongela, terraza, logela bat, amerikar sukaldea, bainugela, trastelekua, aire girotua. Guztiz jantzia eta ekipatua. Oso berria eta gutxi erabilia. 85.000 euro. 655-60 12 52

**Laruns.** Oubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 5 pertsonendako egokia. Deitu 637-41 97 14 telefonora,

**Legazpi.** Etxebizitza salgai 74m2, altzariz hornituta.Legazpiko San Martin auzoan kokatzen da. Deitu 943-73 13 52 edo 678-08 63 21 zenbakietara

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Garajea aukeran. 945-22 26 62 edo 615-70 86 04

**Oñati.** Duplex ederra salgai erdialdean. 116 metro koadro. Aukera-aukeran orain, 276.465 euroan. 635-71 41 39

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Guztiz eraberritua. 150.000 euro. Deitu 635 71 41 39 telefonora

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Tolosa.** Tolosako Alde Zaharrean atiko argitaua. 50 m2. Egoera onean. Prezioa 153.260 eur.. Interesatuek deitu 943-43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi) eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmenta. 658-72 92 88

**Zestoa.** Etxebizitza salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala handia,sukaldea, trasteroa (13m2) eta garaje itxia (18m2). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Mugikorra: 679-80 91 90 edo628-06 94 12

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. Telefonoa: 695-70 18 58

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. 649-55 48 10

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Udala plazan. Hiru plaza, egongela eta bainugela bi. 619-42 14 85

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 635-72 27 81

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean ikasleentzat. Hiru logela dauzka. 628-09 64 44

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erguinen, unibertsitatetik gertu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Hiru logela. 943-79 83 48 edo 636-60 79 60

**Gasteiz.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erdigunean, Jesus Guridi kaleko 1ean. Hiru logea, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 5.solairua, igogailuarekin. 656 79 73 66 edo 943 71 46 46

**Laruns.** Mobil homea uztailean eta abuztuan errentan emateko. Etxe mugikorra Frantzian dago, Laruns-en, Aubisqueren magalean. Bost pertsonarentzako etxea: bi logela; bat hiru umeentzat eta bestea bi pertsonentzat egokia. Bi komun, batean dutxa eta bestean komuna. Sukaldea, egongela eta terraza dauka. 637-41 97 14

**Iruñea.** Hurrengo ikasturterako pisu bat alokatzen da ikasleendako. 948-46 08 02.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. 616-45 23 99

**Osintxun** etxebizitza ematen da errentan. Etxe berria. Eguzkitsua eta terrazarekin. Irune. 670-02 31 90

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. 699 66 33 63

**Donostia.** Donostian etxe bila. Langile oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera Donostian bizi ahal izateko etxe bila nabil. 675-00 87 58

**Durango.** Errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza Durangon. Harremanetan jartzeko: 685-71 74 39 edo 94 681 07 72 (Oihana).

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 619-78 63 41

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin. Oso eguzkitsua. 200 euro. 646-01 36 27

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxebizitza handia, kalefakzioa eta elektrotresna guztiekin. Langileak nahiago dira. 657-72 51 65

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko logela daukat. Arrasatearra naiz. 688-60 86 33

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, Enara eta Amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izango lirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. 695-71 92 38

**Bilbo.** Debagoieneko 2 neska pisukide baten bila gabiltza. Pisua Deustu auzoan dago, Blas de Otero kalean. 325 euro hilean, kalefazio zentralarekin. 685-76 70 82 edo 680-79 48 85

**Bilbo.** Bilbo-Abando. Gela bat alokairunan ematen dut. Armairu enpotratua, interneteko eta kablezko telebistarako konexioak. Gran Viatik 50 metrora. Oso ondo komunikatuta. Diputazioko metroko sarbidetik 50 metrora, eta Bilbo osorako autobus geltokietatik ere bai. Oso zona lasaia da. Parkina ondoan. Sukaldea, guztiz hornituta eta jangela izateko prestatuta, erabiltzeko eskubidearekin. Igogailua. Berogailu zentrala. 380 euro hileko gastuak barne. Telefonoa: 606-25 05 84

**Donostia.** Donostian, Amaran irailetik aurrera gela bat alokatzen da urteosorako edo ikasturterako, neska batentzat, bi lagunentzako pisukonpartitu batean. Gela argia da eta ondo hornituta. 943-65 16 92. Hartu ezean mezua utzi

**Donostia.** Datorren ikasturterako pisukide bila gabiltzan bi neska gara. Pisua Donostiako Amara auzoan dago kokaturik eta pisua oso-oso ongi dago, berriturik. 3 logela, 2 komun, egongela,sukaldea eta gauzak uzteko gela. Ikasle giro apartan bizi nahi baduzu datorren ikasturtean deitu beldur gabe informazio gehiego lortzeko! 687-68 74 48 edo 609-37 42 58 (Amaia)

**Donostia.** Antiguan (Lorea) alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 375 eurogatik (errenta aitorpena eginez 280 euro!) oraindik aurrera epe luzerako (urtebete gutxienez). 2 mutil langilerekin (27 eta 29 urte) partekatuko litzateke pisua. 2 bainu, egongela handia eta sukalde berri-berria. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu arren lehenbailehen 626-22 92 58 zenbakira.

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650-82 83 48

**Eskoriatza.** Bi logela dauzkat etxebizitza berria osatzeko. Unibertsitatetik gertu. Erdigunean. 650-82 83 48

**Gasteiz.** Gasteizen pisua osatzeko bi lagunen bila nabil. Aldabe inguruan, alde zaharretik bi minutura. Bi gela daude libre. Jende irekia eta arduratsua bilatzen dut. Ez erretzaileak. 200 euro + gastuak. Telefonoa: 609-59 46 37

**Gasteiz.** Logela alokagai Gasteizen. Ikaslea den neska bat bilatzen ari gara. Pisua unibertsitatetik 10 minututara dago. 217euro hilean gehi gastuak. Logela nahiko handia da, pisua baita ere. Ikustera etorri nahi baduzu deitu 646-84 12 06 zenbakira. Eskerrik asko!

**Hernani.** Bi pertsona behar dira pisua osatzeko Hernanin. Oso pisu argitsua da, eta logela handiak ditu. Alde zaharretik oso gertu dago. 628-33 31 56.

**Oñati.** Pisukide bila nabil etxea osatzeko 606-15 11 47

**Oñati.** Logela bat alokatuko nuke. 606 15 11 47

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia saldu edo errentan ematen daUarkapen. 615-73 98 30

**Durango.** Aukera handia!! Txibitenan (jesuitak ikastetxearen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. 660 38 59 95 eta 660-38 60 43

**Elorrio.** Garajea salgai Elorrion. 658-75 92 64

### 202. EROSI

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647-24 40 54

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. 17,5 metro koadro dauzka. Goiko solairuan. 635 75 35 29.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 103 metro koadroko lokala salgai Burdiñaten. Bulegorako edo eskolak emateko prestatua. 688 80 57 71.

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. 657-77 97 52

**Etxarri-Aranatz.** Etxarri Aranazko lokal bat alokatu, lekualdatu edo saldu egiten da. Prezioa adosteko. 628-56 47 35.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607-73 16 78

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943-53 33 92

**Arrasate.** Arrasate eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679-73 92 66

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz.Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617-89 41 03

**Arrasate.** Emakumea lan desberdinetan aritzeko gertu. 695-75 42 45

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618-00 08 28 edo 943-79 82 43

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketak egiteko debagoienan. 678-80 11 54

**Arrasate.** Igeltsari ofizial, leunketa eta bestelako lanetan jardungo nuke. Rolando. 639-41 68 38

**Arrasate.** Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 673-03 09 60

**Arrasate.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz.Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara mesedez: 671-99 92 70

**Arrasate.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630-20 12 03 edo 638-10 28 85

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 679-04 42 68

**Arrasate.** Emakumezko batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke. 606-64 16 09

**Arrasate.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. 671-84 71 71

**Arrasate.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. 602-12 03 47

**Arrasate.** Mutila gertu garbiketa edo zerbitzari lanetan jarduteko. Autoa daukat. 689-88 80 23.

**Arrasate.** Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo asteburutan. Legezko dokumentu guztiekin. 618-14 71 34

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. Deitu 697-54 28 76 telefonora

**Arrasate.** Umeak zaintzeko edo ume txikiei klase partikularrak emateko prest nago ekaina eta uztailean. 618-43 60 35 edo 943-76 32 27

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. 680-30 24 64

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635-00 58 17

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edogarbiketa lanetarako. 619-78 63 41

**Arrasate.** Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Esperientzia handia. 680-49 11 45

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Azpeitia.** Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldetan garbiketa lanak egiteko. Harremanetarako deitu 634-76 37 67

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ibarra 47 $m^2$. Berritua.
- Martoko. Eraikuntza berria. 135 $m^2$. Prezio ona.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 80 $m^2$. Berritua.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- San Lorentzo 66 $m^2$. Eraikuntza berria.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Zabalotegi. 80 $m^2$. Oso ondo.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

ikerlan
ik4 research alliance

35 urtetik gorako esperientzia duen
eta Mondragon Taldean dagoen
Teknologia Ikertegia

**PERTSONAL ADMINISTRAZIOAN TEKNIKARIA**

**behar dugu, aldi baterako baja bat betetzeko, ondoko ezaugarriez:**

- Enpresa Zientzietan diplomaduna edo baliokidea
- Esperientzia zabala nomina, gizarte segurantza eta Lagun Arorekin lotutako gaietan.
- Euskararen ezagutza

Interesatuok bidali curriculuma
ondoko helbidera, PAT erreferentzia jarrita:
*per@ikerlan.es*

**Altsasu.** Lan egiteko prest: haurrak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketa orokorrak egin edo arropa konponketak egin. Deitu 948-57 62 07 edo 600-05 15 84 telefonoetara.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

**Bergara.** Neska hainbat lan egiteko egiteko gertu: nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 677-73 79 59

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943-76 28 12 edo 943-76 29 52

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677-73 79 59

**Bergara.** Neska bergarar euskalduna (magisteritza haur hezkuntzan diplomatua eta esperientziarekin) uztail arratsaldeetan haurrak zaintzeko gertu. 636-27 43 88

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegi malgua. 676-89 50 13

**Durango.** Gizon heldu bat adineko pertsonak zaintzeko prest dago, asteburuetan,jai egunetan eta abuztuan hilabete osoan. Telefonoa: 690-28 60 71

**Durango.** Arratsaldez etxeko lanak egin, eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago. Abuztuan goiz eta arratsaldez. Telefonoa: 673-689 769

**Durango.** Abuztutik aurrera marinel moduan lan egiteko prest. Ikasketak ditut, eta esperientzia ere bai. 637 029 373

**Durango.** Garbiketa lanak egiteko prest, tailer edo tabernetan. Telefonoa: 647-24 23 01

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666-08 58 49

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696-48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. 699-60 91 90

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650-23 34 98

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. 618-09 47 87 edo 943-78 15 10

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637-18 07 23

**Durango.** Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... Zaintzeko prest nago. Urte askotako esperientzia daukat eta lehenbailehen hasteko prest nago. 699 745 723.

**Durango.** Bertako neska, umeak edo edadetuak zaintzeko prest. Esperientzia handia. Berehala lanean hasteko prest. 688-676 588 edo 94-658 33 32

**Durango.** 22 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Magisteritza amaituta daukat eta ordutegi malgua eskaini dezaket. 615-73 53 85.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun hezkuntza bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri zaitez nirekin kontaktuan. Honako hau da nire telefono zenbakia: 688-64 06 04 (arratsaldetan deitu).

**Lezo.** Neska euskalduna (EGA) eskaintzen da haurrak zaintzeko, arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina. Deitu 667-23 93 72 telefono zenbakira.

**Markina-Xemein.** Jende nagusia zaintzeko lanaren bila nabil. Orduka edo interno moduan. Esperientzia handia eta informe onak. Telefonoa: 695-72 08.

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635-70 07 92

**Oñati.** Offimatiko neska euskalduna, arduratsua, irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetik, 13.00 aurrera libre nago. 618-09 47 87

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658-73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Elorrio.** Pertsona bat behar da ingeleseko klaseak emateko. Telefonoa: 94-658 46 73

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergorainoko eskolak ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653-01 76 67

**Arrasate.** 6-12 urte tarteko umeei eskola partikularrak emateko prest. Eskoletan esperientzia daukat. Telefonoa: 635-75 05 26

**Arrasate.** Esperientzia handia duen irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, urte osoan eta udan. LH eta DBH. Deitu 943-78 28 43 zenbakira.

**Azpeitia.** EGAazterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia dut. Euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. 645-71 85 78

**Baxu elektronikoaren** teknika, eskalak eta doinuak nahi baditutzu ikasi, deitu 617-81 38 02 zenbakira eta Aitorrengatik galdetu.

**Bergara.** Bergaran Ingeleseko Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 654-94 87 26

**Bergara.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 666-21 73 48

**Bergara.** Marrazketa eta pintura eskolak ematen dira uztaileko 1. hamabostaldian, 10:00-12:00. Arrizuri 5, 1. A c. 651-74 21 54

**Bergara.** Ingeniari teknikoa, udan klase partikularrak emateko prest, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. Esperientzia dbh eta batxilergoan. Telefonoa: 685-70 17 09

**Bilbo.** Euskara klaseak ematen ditut errefuertzo eta gaia errekuperatzeko. Lehen hezkuntzan DBHn eta batxilergoan, baita EGArako prestakuntza ere, eta mintzapraktika. Telefonoa 606-25 05 84. Bilbon uda osoan goizez zein aratsaldez.

**Debagoiena.** Matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta batxilergo mailak. 696-38 10 07

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Telefonoa: 635-74 61 76

**Durango.** Ingeniaritza ikasten ari den neska euskalduna udan klase partikularrak emateko prest durangon. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta, ondorengo gaien inguruan: matematikak, fisika-kimika, euskara, gaztelera, ingelesa eta abar. Telefonoa: 635-20 50 12.

**Durango.** Magisteritza ikasten dabilen neska gaztea, abuztuko lehen hamabostaldian umeak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. 686-741 676 (Amaia)

**Gernika-Lumo.** Lehen Hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo Euskal Herriko edozein gunetan irakasle bezala lan egiteko prest. 687-95 06 05.

**Oñati.** Ingeniaritzako titulua eta irakaskuntzan esperientzia handia duen neska udan DBH eta batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Matematika, fisika, marrazketa eta abar. 678-27 27 57

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak ematen ditut. 666 21 73 48

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak LH, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak ematen ditu udan eta ikasturtean zehar. Irakaslearen edo ikaslearen etxean. 649 27 63 50 edo 943 53 28 15

**Villabona.** Ingelesekoklaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa *continental56@hotmail.com*

### 503. BESTELAKOAK

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. 602 12 03 47.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Seat Ibiza salgai**. Diesela.5 ate. Aire girotua. 2000. urtekoa da; 270.000 km. Distribuzio korrea aldatuta. 90 cc. Egoera oso onean. 650 402 857.

**Autoa salgai.** Astra zuria, gsi 2.0, 16 balbulakoa salgai. Deitu 652-97 45 24 telefonora.

**Peugeot 406 salgai.** Peugeot 406 salgai. Turbo diesel 2,1. Aleaziozko llantak. Aire girotua. Ekipamendu osoa. 1998koa. 193.000 km. Egoera onean. 2.000 euro. 619-59 16 88

**Seat Alhambra monobolumena salgai.** Egoera onean, azterketa guztiak pasatuta eta lau gurpilak berriak. 105.000 kilometro. 2004koa. Prezioa: 14.000 euro. 653-71 04 56

**Elbarrituentzat egokitutako Fiat Ulysse furgoneta salgai.** Fiat Ulysse furgoneta saltzen dut, elbarrituentzat egokituta. Atzeko kajoia, ispilu elektrikoak, ABSa, kristal elektrikoak, lainoaren aurkako argiak, ITVa eguneratuta 2012ra arte, GPSa, mp3, irratia, cd-a, klimatizagailua. Egoera onean dago. Prezio interesgarria. 657-79 80 38.

**Renault Master autokarabana** Bidaiatzeko 6 plaza (dena homologatua). Eserlekuekin ohe bat egiten da: 1.25 x 1.9 m. Bigarren ohea 1.30 x 1.90 m furgonetaren sabaian plegatua. Ur edangarria 170l eta ur zikinerako andelak 120l. Arropentzat armairu bikoitza. Jateko mahai plegatua. 12 v iluminazioa. 2 sutako sukaldea, fregaderoa eta armairuak. 90 litroko hozkailua. Bateria auxiliarra. Toldoa. Bizikletak eramatekoa. Kopilotoaren aulkia birakaria. Kontaktua: *edurne.arrieta@euskaltel.net* edo 655-72 52 52

**50 cc Peugeot Eliseo maxi scooterra salgai.** 50 cc Peugeot Eliseo maxi scooterra salgai. 2000 urtekoa, 3.000 kilometro ditu, berri-berria dago. Motor handiagoa erostearren saltzen dut. Prezioa: 1.000 euro (negoziagarri). 675-00 88 04

**Honda Rincon ATV quad-a salgai.** Honda Rincon ATV quad-a salgai. Bost urte ditu eta berri-berria dago. Prezioa: 4.600 euro. 675-00 88 04

**Land Rover Defender luzea salgai.** Land Rover Defender td-5 luzea salgai; 9 plaza; 2002 urtea; 145.000 kilometro; 110 zaldi; erremolkearentzako bola; egoera ezin hobea; hobeto ikusi; 9999 euro. Telefonoa: 652-73 82 74 (Iker).

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain-txakur alemaniarrak.** Alemaniar artzain-txakurkumeak salgai, pedigridunak. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 695-78 63 72

